



ARGIA

JOSE LUIS MENDOZA,
NAFARROAKO HEZKUNTZA KONTSEILARIA:

**"INTERES ASKO DAUDE
GAUZEK ZEUDEN MODUAN
JARRAI DEZATEN"**



Perretxiko zaindaria



Atsegin duzu perretxiko bila joatea?

Horrela bada, jolas honen bidez perretxiko biltzaile arduratsua eta bikaina bihurtuko zara

- Perretxikoak ezagutu
- Ingurunea zaindu
- Perretxiko-bilatzaile ona izan.

Basora joan eta aukeratu zure ibilbidea eta helburua.

Hiru helburu, hiru jolas, taula berean.

Perretxikoak bildu ahal izateko galdera bati erantzun beharko diozu. Hiru erantzun posible izango dituzu!

27 euro

Harpidedunentzako:
24,00 euro



+8



2-4



20-40 min.

Eskærak:

☎ 943 37 15 45

denda@argia.eus · www.argia.eus/denda

Industrialdea, 15 - 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)

 **ARGIA**

PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6 Albisteak
- 10 Gazteluko Plazatik
- 11 Hor dena gailu
- 12 Net Hurbil

IRITZIA

- 19 Estitxu Garai Artetxe
- 20 Angel Erro
- 21 Iñaki Barcena
Joanes Etxebarria
- 22 Endika Alabort Amundarain



Europar Batasunak kuota sistema ezabatu zuenetik, produkzio kostuak berdin ezinik dabilta euskal esne ekoizle asko. (ARGAZKIA: EHNE)

- 40 LURRAK IRAULIKO GAITU
- 42 DENBORAREN MAKINA
- 43 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA:
MIGUEL JARA
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: DANI BLANCO

SAKONEAN

- 14 | Begoña Yarza: "Iruditzen zitzaidan Txile ahanzten banuen Pinochetek irabazia zuela borroka" / Miel A. Elustondo
- 24 | Esne ekoizleak, Europako merkatu librean gatibu / Gorka Berasategi
- 30 | Jose Luis Mendoza, Nafarroako hezkuntzaren patata beroa kudeatzen / Mikel Garcia Idiakez
- 34 | Joseba Eceolaza: "Diskriminazio positiboa kontuz egin ezean, gizartearen zati bat aurka jartzen da" / Xabier Letona
- 37 | Lan munduaren euskalduntzea: "Askot egin duten enpresak hasiak dira beren sabaietara iristen" / Onintza Irureta Azkune
- 44 | Antzerkia Muxikan. Baina hainbeste emakume badago herrian? / Malen Aldalur Azpillaga
- 47 | Epaile baten galderak ETako militante baten aurrean / Gorka Bereziartua Mitxelena

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU,
GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaña Taldeko parteidea.

Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre.

Erredakzioa: Ane Urkola, Axier Lopez, Estitxu Eizagirre, Garbine Ubeda, Gorka Bereziartua, Iker Oñate, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.

Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco.

Produkzioa: Antza S.A.L.

Harpidetza: Iratitz Agirre.

Salmenta: Idoia Arregi, Isabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.

Idazkaritza: Aloña Sorraluze, Bego Zuza.

Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Lioarte, Marijo Aiertza.

Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048.

Lapurti, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.

Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.

Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.

Interneten: www.argia.eus.

Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.

Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

HARPIDETZA:

Euskal Herria eta Espainiako estatua: astero, 12 € hilean; hamabostero, 6,5 € hilean; hilean behin, 3,5 € hilean.

Beste atzerriak: 15 € hilean. Airez: 24 € hilean.



PANORAMA

Egia, ahantzuraren antonimoa

Bost hildako, ehundik gora zauritu eta 40 urtez sendatu barik dagoen zauria eragin zituen Espainiako Gobernuak 1976ko martxoaren hiruan. Urteen joan-etorriak, ordea, ez du aitortza, erreparazioa eta egiaren aldeko nahia ito. Milaka lagun batu dira aurtengo urteurrenako ekitaldietan Gasteizen, triskantza egin eta baimendu zutenak behingoz justiziaren aurrean kontuak eman ditzaten; orduko hiltzaileen egungo oinordeko ideologikoez nahi ez badute ere.

Argazkia: Alex Larretxi



“Espainia errepublikanoa, laikoa eta gorria izateko, aurrez Espainia hautsia behar da”

Arnaldo Otegi

argia.eus/multimedia



Amaren izenean

1937tik 1944ra bitartean Saturraraneke balnearioan 4.000 emakume izan ziren preso. Tartean, Martina Iglesias. Txostenak esaten duen bezala hil zen ala fusilatu egin zuten?



Europako ikasle foroa Laudion

Europako 24 ikasle antolakundetako 230 lagun inguru batu ziren Laudion, hezkuntza duin eta publikoaren alde.



ASIER IMAZ / ATARIA.INFO

Emakume bortxatuari hankak “ongi itxi” al zituen galdetu dio Gasteizko epaile batek

Mikel Garcia Idiakez

@mikelgi

Sexu erasoa salatzen joan zen biktimari “hankak ongi itxi al zenituen? Organo femeninoen atal guztiak itxi al zenituen?” gisako galderak egin zizkion Gasteizko epaile batek. Salatu egin dute epailea.

Tratu txarrak eta sexu erasoak jasan zituen emakumea egoera salatzen eta babes neurriak eskatzera gerturatu zen, joan den otsailaren 16an, Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Gasteizko 1. Epaitegira. Bertako epaile María del Carmen Molinak hitzordua baino lau ordu beranduago hartu zuen biktima eta estuki itaundu zuen. Hala jakinarazi du Clara Campoamor elkarteak presidente Blanca Estrellak: “Salatzailearen testigantza ez sinestea izan zen epailearen

aurretiko jarrera, ez zion erantzunik bukatzen utzi, galdera iradokitzaileak egin zizkion eta haren deklarazioa baldintzatu zuen. Erasoen aurrean erresistentziarik jarri al zuen galdetu zion eta hitzez hitz esan zion ea hankak ongi itxi al zituen”. Bideoz grabatua dago deklarazioa.

Bigarren aldiz biktima bihurtuak


Jarrera hori “mingarria, iraingarria eta umiliagarria” delako eta “biktimarenganako gutxieneko portaera profesional eta etikorik” ez duelako batetik, eta epaile honek indarkeria matxista jasaten duten emakumeen “eskubideak etengabe urratzen” dituelako bestetik, epailea zigortzeko eskatu du Clara Campoamor elkarteak. Izan ere, kasua ez da isolatua eta “ohikoa” da epailearen portaera hori.

“Lau urte eta ez dago epaiketarik, eta baliteke ez egotea”

DAVID GONZALEZ, IÑIGO GOGOAN HERRI EKIMENENKO BOZERAMAILEA

Cabacas auzian instrukzio fasea amaieratik gertu dago eta herri ekimeneko kideek elkarretaratzea egin dute, ekainean epaileak hartu behar duen erabakiaren garrantzia azpimarratzeko. “Epaiketa egingo den ala ez den egingo”, hain zuzen ere. Azken aukera hori “jendeak ez luke ulertuko, batik bat Manuk eta Finak, Iñigoren gurasoek”. Apirilean lau urte beteko dira Iñigo Cabacas Ertzaintzak jaurtitako gomazko pilota baten ondorioz hil zela. **URIOLA.EUS (2016-03-01)**





30 urtean

100.000 lagunez emendatu da

Iparr Euskal Herria. Horietarik gehienak kanpotik etorriak (9.000 Akitaniako eskualdeetatik).

Hendaiatik Baionara

Jende gehiena Lapurdin metatu da, bereziki kostaldean: 1960az geroztik, bikoiztu egin da biztanle kopurua. Barnealdeko hainbat hirik ere gora egin dute: Urruña, Kanbo, Uztaritze.

Emendatze nabarmena Lapurdin gertatu da. Nafarroa Beherearen hustea gelditu da, baina Zuberoak populazioa galdu du.

Iparr Euskal Herrian, biztanleria gora

Diru iturriak

% 64,5 jarduera bati lotuak
% 31,4 erretiretak eta errentak
% 04,3 laguntza sozialak


3.438 familia gehiago 2007tik

Haurra dutenen multzoa nagusi da oraindik, baina haurrik gabekoena handitu egin da.

Iturriak: Iñaki Etxeleku (Iparr Euskal Herriko Hitzza) | Gaiñdegia | Baionako Merkataritza Ganbera.

Infografia: Gurbine Ubeda Goikoetxea

Biztanle emendatzearen %65 80 urtetik goitikoak



Ezaugarri sozioprofesionalk. Gehien emendatu den **enplegu-mota**, **aldian aldikoa**, eta **arloak**, merkataritza eta zerbitzuak. **Langile eskatuak:** batetik, ostatu zerbitzariak, sukaldariak eta saltzaileak, eta bestetik, erizainak, adinekoen artatzaileak eta gizarte langileak.

INFOGRAFIA: GARBINE UBEDA



INÍGO AZKONA

Errausketari buruzko datuak manipulatzeari leporatu diote Bizkaiko Aldundiari

Unai Brea

@unaibrea

Bizkaiko Foru Aldundiak hondakinen kudeaketari buruz zabaltzen dituen datuetan manipulazio larriak daudela salatzen du Gorka Bueno EHUKo irakasleak, Ekologistak Martxan taldearen izenean, Bizkaiko Batzar Nagusietan egindako agerraldian. Manipulazioaren adibide modura Zabalgarbi erraustegian sorturiko zepak aipatu dituzte. Zepa horiek sistematikoki jotzen dira birziklatutzat, nahiz eta benetan zabortegira botatzen diren. 2014an 42.000 tona baino gehiago izan ziren.

Erraustegia martxan jarri zenetik 2005ean 400.000 tona inguru zepa eratu dituela adierazi dute, “inoiz birziklatu ez direnak”. Gainera, hondakin ez-arriskutsuetarako zabortegetara eraman dituztela salatzen dute, haien arriskugarritasunari buruzko azterketarik inoiz egin ez bada ere.

“Energia sortu gabe erraustu”

Zabalgarbiaren aldeko argudio nagusietakoa da energia jartzen duela herri-tarren eskura, hondakinei aterabidea

ematen dien aldi berean. Gorka Buenok azaldutakoaren arabera, ordea, “Zabalgarbi hondakin asko erraustu dituen energia-berreskurapenik gabe”.

Bilbon dagoen erraustegia bi turbina erabilia sortzen du elektrizitatea: gas bidezkoa bata, lurrin bidezkoa bestea. Bigarren hori da hain zuzen erraustutako hondakinen energia berreskuratzen duena. Matxuratuta dagoenean –hainbat alditan gertatu da hori– ez da argindarrik sortzen erretako hondakinetatik, bestelako bideetatik baizik, “eta oso efizientzia eskasarekin”, Buenoren berbetan.

Hori horrela, ezbaian jarri dute martxan hasi zenetik erraustegia “hondakinetan oinarritutako energia elektrikoa sortzeagatik” jasotako diru-pizgarrien zilegitasuna. Izan ere, plantak eratutako energia osoagatik jaso dituen laguntzak Zabalgarbi, baina Ekologistak Martxanek egindako kalkuluen arabera energia horren %30 baizik ez da hondakinak erraustetik sortu.

Bizkaian hondakinak kudeatzeko eta tratatzeko sistemaren erabateko ikuskaritza egin dadila eskatu du Ekologistak Martxanek, bai diru-kontuei dagokienez bai hondakin kopuruei dagokienez ere.

EKONOMIAREN TALAIAN

Berdintasun eza ez da berez sortzen



Juan Mari Arregi

Genero desberdintasuna gure jendartearen egitura guztietan dago. Behin eta berriz gogoraraztea komeni den ideia da hori, are gehiago Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatzen dugun aste honetan. Ondorengo lerrootan enpresetako lan-harremanetan dagoen genero desberdintasunaz ariko gara. Haurrak zaintzeko laneko baimenen %96 emakumeek hartzen dute. Lan murrizketen %92 ere emakumeentzat izan ohi da. Horrek guztiak ondorio larriak ditu emakumeen etorkizunerako.

Adibide bat: Gasteizko Elecnorreko bost langileren kasua. Haietako lau lanegun murriztuarekin zeuden eta abenduan mahai gainean aukera zaila jarri zieten: Getafera (Madril) leku aldaketa onartu edo kaleratuak izan. Indemnizazio txiki bat jaso zuten arren, lanpostua galdu zuten. “Ez zuten guk hor lan egiterik nahi; denbora asko zebiltzan kexuka, lanegun murriztu eta epe luzeko baja asko zegokela esanez. Horregatik kendu gaituzte paretik”, diote emakume kaltetuek. Kontziente dira eurenak “ezkutuan egindako despidoak” izan direla, lan hori familia ardurarik ez duten beste pertsona batzuek egiten jarraitzen baitute orain Gasteizen.

Aitortutako eskubidea den arren, praktikan kontziliazioa oraindik eragozpena da lan-harremanetan. Eta emakumea da ia gehienetan hori sufritzen duena. Lan-harremanetan sakoneko aldaketa egin behar da desberdintasun hori desagertu dadin; horrek esan nahi du gobernuen politikak aldatu behar direla. Emakunderen mezuak dioten moduan, “berdintasun eza ez da berez sortzen, egin egiten da”. Egin dezagun berdintasuna txikitatik, familian, eskolan, unibertsitatean, gobernuetan, erakundeetan, lantegietan, komunikabideetan, publizitate agentzietan...



Abian da gaeliko irlandarraren aldeko Korrika: Rith 2016

IRLANDA. Gaeliko irlandarraren aldeko Rith –bi urtean behin egiten dutena– martxoaren 4an abiatu da. 1.000 kilometro baino gehiago egingo dituzte 11 egunez. Rith-ek gaelikoz “korrika egin” esan nahi du, Cill Droichead-en hasi da (Kildare) eta Dublinen amaituko da. Edizio honetan, lekukoan dagoen mezua Irlandako presidenteak idatzi du. Irlandako errepublikan hizkuntza ofiziala izan arren, gaelikoaren erabilera egoera larrian dago. Wikipediaren arabera uhartean 130.000 inguru dira Irlandako gaelikoa lehen hizkuntza dutenak, gehienbat mendebalde urruneko landa giroan; komunitate txikiak ere badira Irlandatik kanpo.

Donostiarrak zerbait erabaki dezake metroaren aferan?

Gorka Bereziartua Mitxelena

@boligorria

Donostiako metro proiektuaz eztabaida publikoa sustatu nahi du Sator Alaia kolektiboak. Martxoaren 1ean horrelako proiektuetan herritarren erabaki ahalmenaz jardun zuten Koldo Mitxelena Kulturunean.

Porlanaren politika

Josu Larrinaga EHU-ko irakasleak azaldu zuenez, herritarren parte-hartzea modan dago, baina “porlanaren politika” diferentea da. Alor horretan ez zaio jendeari galdetzen, herritarren bultzada da “demokrazian sakontzeko modu ia bakarra”.

Ahulak, indartsuak

Burgosko Gamonal auzoko borrokan bizilagunen ahultasuna indargune nola bihurtu zen azaldu zuten: zaharrek gazteen premia sentitu zuten, borrokak intentsitatea irabazteko; eta gazteek zaharrena ere bai, kriminalizazioa saihesteko.

Informazioa nekez

Sator Alaiaiko Mikel Sanchezek azaldu zituen proiektuari buruzko informazioa lortzeko zailtasunak: Gasteizera joan behar da txostena ikusteko. Hori bai, herritarrek informatzeak badu eraginik: 400 alegazio jarri zaizkio Donostiako metroari.

ETXEBIZITZA



16.165

etxe kaleratze egin dituzte 2007tik 2015era bitartean Hego Euskal Herrian, Espainiako Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak dituen datuen arabera. Kaleratze gehienak Bizkaian egin dituzte, gutxien Gipuzkoan.

116.460 etxe huts inguru daudela aurreikusten da Hego Euskal Herrian.



SINBOLOEN LEGEA MAHAI GAINEAN

Abian den Sinboloen Legea bertan behera utzi eta aniztasuna eta bizikidetzat hartuko dituen Legearen alde dago gehiengo Nafarroako Parlamentuan: Geroa Bai, EH Bildu, Ahal Dugu eta Izquierda-Ezkerra, eta kontra UPN, PSN eta PP.



JANTOKI EREDUA, ESKOLAREN ESKU

Eskola bakoitzak bere jantokiaren kudeaketa-eredua aukeratu ahal izateko mozioa onartu dute Eusko Legebiltzarreko osoko bilkuran: catering, autokudeaketa, edota beste erakunde lokalak.



ZURRUMURRU ARRAZISTEN AURKA

“Ez hadi endreda, zurrumurru arrazista eta xenofoboekin” kanpaina abiarazi du CEAR-Euskadik. Zurrumurruren arriskuaz ohartarazi nahi dute, “aurreiritziak sustatu eta atzeritarren aurkako gorrotoa bultzatzen dutelako”.

Berrikuntza keinuak Belodromoan



Xabier Letona

@xletona

ARNALDO OTEGIK samur gairitu du jarri zaion lehen langa, eta hori espetxetik atera berritan egitea asko da. Komunikazio ahalmenaz zeresanik ez, lehen erakutsitakoa berretsi du orain, eta ez nolanahi. Gainera, jakin izan du interpretatzen ezker abertzalean dauden beharrak, eta sikiera hori berba bidez adieraztea ez da gutxi, hori delako gero praktikara eramateko lehen oinarria: iparra independentzian, argi eta garbi, Euskal Estatuan; ezkerreko eta gizarte mugimenduetako aldarrikapenak lehen lerroan; errealitate politiko berriaz jabetuta –Ahal Dugu–; eta ilusioa zabalduz, azken hauteskundeetako danbatekoen ondoren, bere burua berregituratzen ari denarentzat ezinbestekoa.

Edozein talde edo erakundetan, berrikuntza pertsona berriek bakarrik egin dezakete, eta izatekoan, eta horretarako borondatea badago, beteranoenek aldaketa hori egiten lagun dezakete

Ezker abertzalean ilusioa falta ei dela azpimarratu zuen Belodromoan. *Abian* txostenean ere agertzen da ideia hori: “Egin dugun aldaketa baten konplexutasuna ulertu behar dugu eta behar bezala kudeatu, Ezker Abertzalearen oreka emozional kolektiboa berreskuratzeko. Pasio komunak berpizteko, elkarrekin borrokatzeko, elkarrekin lan egiteko gozamina gaurkotuz. XXI. mendeko Ezker Abertzalearen eta euskal borrokaaren epika sortuz”. Ezker abertzaleko oinarriak behar zuen *txute* bat eta Otegi eman dio, epika eta guzti gainera.

Otegi zen agerraldiaren muina, baina bestelako zizka-mizkak ere egon ziren. Jon Maiaren jardunak oihartzun handia izan du, Belodromoko milaka pertsonen baino askoz gehiagok jarraitu dute olerki-abesti katea eta bertsolariak herritar askoren barrena ukitu du. Biralitatearen tamaina izan da ezustekoa, baina Maierengandik espero liteke halako jardun bat.

[JONE ETXEBERRIA] Sortuko sozio-ekonomia alorreko militantearen jarduna politikoki deigarriagoa izan zen: ezkerreko gizarte sektore zabalen oinarri-oinarrizko adarrak astindu zituen. Tamainako ekitaldian, bera moduko pertsona lehen lerro politikora ateratzea bada ezker abertzaleak premiakoa duen musu berritzeari egindako keinua.

Pertsona, ideia eta antolamenduaren berrikuntza ezinbesteko baldintza dira eraldaketaren aldeko edozein mugimendurentzat, eta ezker abertzaleak badu horretarako beharrik. Ez da kanpokoen pertzepzioa bakarrik, egun, dagoeneko, barrukoa ere bada; azken bost urteetan gizarte mugimendu askotan elikatu dena, orain egitura politikora heldu da. *Abian* zorrotza da diagnostikoa: “Bistan da. Ez diegu bertikal-

tasunari, barne demokrazia gabeziei, erabakien gardentasunari eta beste zenbait konturi behar bezala aurre egin, eta horrek, azkenean, proiektu politikoa kaltetu du (...) agertutako gaitasun estrategikorik eza ez da naturala, ez da halabeharrezko zerbait, gaizki egindako gauzen ondorioa baizik. Besteak beste gaurkotu ez den antolaketa eta jardura estilo-ereduaren ondorioa. Aro berria tresna zaharrekin kudeatu nahi izan dugu eta ez du funtzionatu...”. Eta jarraitu nahi duenak topatuko du autokritika gehiago sarean dagoen *Abian* agirian.

Alde horretatik jarrera interesgarria agertu zuen Otegi: egin baino lehena-go entzun. Ez da erraza izango, kazetari gisa urte luzez politikarien inguru-marian ibili izanak, oro har, erakusten dizu politikariak zein gutxi galdetzen duten, eta bistan da galdetzen ez duenak ez duela entzun nahi.

AURPEGI BERRITZEARI dagokionez, Otegi HBko Mahai Nazionalaren espetxeratzeak jaurti zuen pantailen aurrera 1997an. Ezker abertzaleak orain badu pauso hori lasaia egiteko aukera, baina lokartu barik, pertsona berek nekez emango baitute jardura berririk. Gaitza berrikuntza garrantzitsurik egitea, trantsizioa *aparatu*ko pertsonen gidatzen badute. Edozein talde edo erakundetan, berrikuntza pertsona berriek bakarrik egin dezakete, eta izatekoan, eta horretarako borondatea badago, beteranoenek aldaketa hori bideratzen lagun dezakete. Lege oso zaharra da hori. Horrek arriskua onartzea esan nahi du eta proiektu politikoa ez kontrolatzeko prestutasuna. Ez da samurra, baina hori da berrikuntzaren prezioa.

Eta aldaketa prozesu horretan guztian, nola kokatzen da lider beterano bat? ■



Ondo konektatua, ondo kontrolatuta: ikusi zenbat dakizun Ton Siedsmaz



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Estatuen –eta korporazio handien– inteligentzia zerbitzuek herritar guztion komunikazioen metadatuak pilatzen dituzte: zein ordutan nondik nori hitz egin edo idatzi diozun, watsappez, emailaz... “Lasai, edukiak ez dizkizugu begiratzeko” diote agintariek. Holandako herritar batek bere burua eskaini du astebetez erakusteko herritarren kontrola noraino iristen den.



Azken denboretan jakin da mundu oso-ko inteligentzia zerbitzuek, aitzindari eta buru dutela AEBetako NSA Segurutasun Nazionalen Agentzia, herritarren komunikazioen metadatuak kopuru izugarrietan pilatu dituztela, tartean e-mail eta telefono mugikorretatik lortuak.

Jendeak –kezkatuena, egia, gehien- goa futitzen baita– zelatatuta sentitu direnean, segurtasun indarretako buruek eta agintari politikoei lasaitu nahi izan dituzte esanez beren komunikazioen edukien konfidentzialtasuna bermatua dela. Agintariek gordetako metadatuak ez dira, berez, posta edo deien edukiak berak; metadatuok dira nork nondik nori noiz nora deitu edo idatzi zion, telefonoa une bakoitzean non zegoen (geolokalizazioa), zein webgune bilatu edo bisitatu den... Askok da ala gutxi maiseatzea da?

Amsterdamen bizi den Ton Siedsma gazteak bere burua eskaini du akuritzat *De Correspondent* aldizkariarekin elkar-lanean astebeteko komunikazio guztien jarraipena egin eta analizatu diezaioten. Emaizta, ARGIAko irakurle asko ere harrituko dituen, Dimitri Tokmetzis kazetariak kontatu du otsailean.

2015eko azaroaren 11n hasita Siedsmak astebetez ez du egin beti egiten ez duen ezer: lana, lagunekin egon, neskalagunarekin ere bai. Hori bai, aplikazio batek jaso ditu zortzi egunez Siedsmak smartphonetik bezala ordenagailutik egindako komunikazio guztiak.

Azaroaren 18an aldizkariak Siedsmaren metadatuak bilduma analizatzeko

utzi dizkie Ganteko (Flandria) unibertsitatean ari den iMinds ikerlari taldeari, eta Risk and Security Expert konpainiari. *De Correspondent*eko Dimitri Tokmetzisek ere bere analisiak egin dizkie.

15.000 itu edo gertakizun eskaini ditu aste beteko jarraipenak. Telefonoak antenaren batekin topo egin duen bakoitzean, baita e-mailen bat hartu edo bidali edo webguneren bat konektatu duen aldioro, Ton non zegoen marka geratu da metro gutxiko okerrarekin.

Gizonaren harreman sarea ere kartografiatu ahal izan dute, telefonoko eta e-mail bidezko trafikoa esker. Webean egindako ibileretatik dakite non sartu den eta zer bilatu duen. Eta postako mezuen gaia ere ikusi ahal izan dute ikerlariek. Prozesua bukatzeko, *De Correspondent*ek publikatu du Ton Siedsmaz aste beteko jarraipen arin batekin jakin duena, akuriak berak baimendu ez duen xehetasun pertsonalen bat salbu. Eta nor da Ton, miaketaren arabera?

Hogeita hamar urte bete ez dituen lizentziatu gaztea da. Jasotzen dituen e-mailek ikasleen bizilekuak eta aldi-kako lanak aipatzen dituzte. Ordu luzez aritzen da lanean eta trenean ere denbora asko ematen du, lanagatik. Nekez etxeratzen da 20:00 baino lehen eta etxean ere lanean darrai berandu arte.

Bere neskalagunak Merel du izena. Jarraipenak ez du argitu elkarrekin bizi direnez. Elkarri egunero watsapez 20 mezu inguru bidaltzen diote, gehienetan Ton etxetik kanpo dabilenean. Merelek ia


beti deitzen dio Amsterdameko geltoki nagusian trenea hartu aurretik. Merelek ahizpa bat dauka Annemieke izenekoa, ikaslea oraindik, bere mezueta baten izenburuak doktorego tesia aipatzen du.

Akuriaren ikasgaia

Tonek maite ditu kirol informazioak, *nu.nl*, *nrc.nl* et *vk.nl* guneetan jarraitzen dituenak. Txirrindularitzaren zalea da, berak ere praktikatzen du. Eleberri eskandinaviarrak leitzen ditu, Google eta Yahooon zer bilatzen duen ikusita, erlijioaz ere interesatzen da. Baliteke kristautua izatea. Jarraitzen du erlijio gaiak lantzen dituen Karen Armstrong, Tomasen Ebanjelioa eta *The Messiah book Middle Ages* ere bai, katedral eta elizetako sinbolismo kontuak bezala. Wikipediara asko jotzen du gai horien atzetik.

Alde friboloago batetik, Tonek ikus-entzuten ditu Youtuben Jerry Seinfelden “*Sweatpants*” eta Rick Astleyren “*Never Gonna Give You Up*”. Holandako tele-errealitatean famatua den Roy Donders aktorea jarritzen du. *De Correspondent*ek azaltzen ditu Tonen kapritxo gehiago, edonork hurbileko lagunei besterik aitortzen ez dizkien horietakoak. A, eta tematuta dabil audio kasko on bat esku-ratzeko, Bluetooth eta guzti ahal bada.

Tonek postarako hiru helbide ezberdin erabiltzen ditu, laneako gauzetarako bat eta bestelako harremanetarako beste bi. Horien helbideetan eta “*Gaia*” atalean arakatzeko soilez, ikerlariek ondorioztatu dute teknofiloa dela, jantzia



Flickr zerbitzuan eskegitako ezkerreko argazkian, Ton Siedsma publikoan aurkezten bere ordenagailuaren eta smartphonearen astebeteko metadatuak zer salatzen duten azterketa arin baten galbahetik iragazita. 'De Correspondent'-ek argitaratutako goiko irudiak erakusten ditu Siedsmaren neskalguna eta gertuko lagunen harreman sarea, posta elektronikoz aste betean edukitako harremanak multzoka sailkatutik. Beste grafiko batzuetan azaldu dituzte Siedsmaren 24 orduko joan-etorriak smartphoneak utzitako arrastoen haritik.

gainera. Informazioaren teknologiak ditu maite, informatikako segurtasuna, bizi pribatuaren defentsako eta Internet eta askatasunei buruzko gaiak.

Sarritan mezuak zifratutik bidaltzen ditu, PGP sistemaz lagunduta. SQLite motako data base programei buruzko bilaketak egiten ditu askotan. Forum teknikoetan parte hartu ohi du eta horietan datuen analisisiei eta erregistratzeari buruzko informazioak bilatzen ditu.

Hackerren mundua eta pedo-pornografia aztertzen duten adituena ere gertutik jarraitzen ditu. "Susmoa daukagu, era berean, Ezker Berdea alderdi politiko holandarraren jarraitzailea dela", diote analisisian. Herritar baten joan etorriak nola kontrolatzen diren adibidetzat, Siedsmak azaroaren 13an egin dituen mugimendu guztiekin grafikoa

eskaintzen du *De Correspondent*ek interneten edonoren ikusgai.

Telefonoak eta ordenagailuak sarean utzitako arrastoei esker, ikerlariak ondorioztatu dute Tonek jurista lanak egiten dizkiola Bits of Freedom (*bit* hitzarekin jokoa eginez, Askatasun zatiak edo Askatasun bitak) erakundeari. Bere harremanetan askotan aipatzen ditu Europar Batasunaren legeak gai honetaz, poliziak eta inteligentzia zerbitzuek nola egiten duten lana pedo-pornografia sareez. Bits of Freedomek daramatzan kanpainaz asko hitz egiten da bidalitako eta hartutako elektro-postetan, horien izenburua ikuste hutsak erakusten duenez.

Risk and Security Expert konpainiak ondorioztatu duenez, "Siedsma oso ondo kokatuta dago Bits of Freedomen barruan egoeraren ikuspegia orokorra behatzeko, gauza garrantzitsua in-

formazio zerbitzuen ikuspegitik". Ton Siedsmaren lagunei dagokienez, ikerlariak hiru multzotan sailkatu dituzte, nahiz eta akuriarekin aurrez egindako tratuatik uko egin dioten e-mailetako harremanak telefono deiekin gurutatzeari, funtsean lagunen intimitatea errespetatze aldera. Nahi izan balute egingo zuten erraz.

Hori dena gutxi balitz, iMindseko analistek lortu dute Siedsmaren Twitter, Amazon eta Googleko kontuetan sartzea, duela hilabete gutxi horien segurtasun sistemetatik ihes egindako pasa-hitzekin jokatu. Tonek ustez sekretuki komunikatuak ikusi ahal izan dituzte eta nahi izan balute bere orde egin ahal izango zituzten erosketak ere. Hori dena egin badute zortzi eguneko jarraipen arin batekin, pentsa inteligentzia zerbitzuek... ■



zuri begira



ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com




Begoña Yarza, medikua

«Iruditzen zitzaidan Txile ahanzten banuen Pinochetek irabazia zuela borroka»

Txiletik datorrela esan digute, Kuban hazia dela Salvador Allende hilez geroko garaian, mediku dela, hainbat aldaketa iraultzaile eginak dituela zuzentzen duen ospitalean... Hariari jarraiki gatzazkio, galdezka, putzu sakonean sartu garen arte.



Miel A. Elustondo

ARGAZKIAK: ZALDI ERO

Ez duzu lehenengo bisita arbasoen herria.

Ez. 1999an etorri nintzen lehenbizikoz, etxean aditutakoak eraginda. 1820an Oñatiko Altzin baserriko Manuel Yarza Balenzategik Txilera emigratu eta Polanco probintziako Minas hirian kokatu zen. Handik hogeitaz urtera, bera bezain emigrante Josefa Lasarte Askoberetarekin, Oronozkoa, ezkondu zen. Haiek atzera Oñatira bidali zuten Tomas birraitona, hemen ezkondu zedin. Zortzi seme-alaba izan zituzten: bost neskak hemen gelditu ziren; eta hiru semeak, aldiz, Ameriketara bidali zituzten, bateko soldadutza eta besteko gerra zirela.

Migrazio historia ohikoa.

Migrazio historia horrekin batera, ordea, gure etxean bazen besterik: familia oso harro zegoen euskal jatorriaz. Zenbait izateko modu jatorriari egozten zitzaizkion. Inor etxean oso ekina baldin bazen, "Ez alferrik da euskalduna!", esango zuten. Inor astazakil xamarra baldin bazen, berdin. Legendak ere baziren etxean. Zioten, aitari zulo bat egiteko agindu ziotela behin, hasi zela zuloginean, eta azkenean lanari uzteko esan behar izan

ziotela, baina ordurako zuloa zulokotetzar handia zela. Bi gauza horiek, beraz: indarra, batetik, eta lanean gogor jarduteko ahalmena, bestetik, euskaldunari berezko zitzaizkionak, inondik ere. Baziren, gainera, zenbait hitz aitaitak erabiltzen zituenak, hemengo berbak... Aitaita hura maitagarria zen nirekin. 1971n hemen izan zenean...

Aitaita?

Bai, aitaita Simon hemen izan zen 1971n, eta itzuleran, bilobatan niri beste inori ez zion erregaloea eramane; eta 30 biloba ere bazituen. Bazen loturarik gu bion artean, eta partez, haren istorio-historiak aditzen nituelako zela esango nuke. Ezpata-dantzari izan zela esaten zidan, eta 70 urte baino gehiago zenean ere, alde batera eta bestera jauzika jarduten zuen, dantzaria izana zela niri erakusteko. Kontatzen zuten, gainera, Simon eta anaiak oso ekintzaileak zirela, gauzak egin zaleak, eta oinetako tailer txiki bat ireki zutela, La bota verde. Gero, tailerra handitu eta fabrika egin zuten, Yarman izena harturik. "Yar", Yarzarena, eta "Man", gizon, ingelesetik. Arrakasta handiko industria. Dena dela,

hor bada jakingarririk. Osaba Eladiok fundatu zuen, eta lehenbiziko langileak kontratatu zituenean, denak bildu eta sindikatua osatzeko eskatu omen zien, on egingo ziela-eta.

Ez dago gaizki esana. Hemen kontrako haizeak jotzen duela dirudi.

Sindikatuak, ordea, biltokia behar izaten du, eta osabak biltokia eraiki zuen, kirol-zentroa, emakumeentzako txokoa... iragan mendearen hasieran. Alegia, garai hartan ohiko ez zen pentsamoldea zuen osaba Eladiok. Arrakasta handiko gertatu zen, hala industriari, nola langileekiko harremanari dagokionez. Fabrika hartan langile izandakoak ezagutu izan ditut, ezagutu izan naute, eta miresmena baino ez dut jaso: "Yarzatarra zu? Eladio, Julian, Simon... Haiek ziren, haiek!". Harrotzeko arrazoirik ez zait falta.

Ari zara, zeure familiaz ari ere. Baina ez dezagun zeure burua ahaztu. Nor dugu Begoña Yarza?

Mediku pediatra naiz, intentsibista – zaintza intentsiboak dut espezialitatea –, eta 2000. urteaz gero osasun publikoan



Begoña Yarza Sáez

1966, Rengo, Txile

Oñatin ditu aitaren erroak, Galizian amarenak. Aitaren ibilbideak gidatu du Yarza Sáez familiaren bidea, Pinocheten estatu kolpeak erbestera eraman baitzuen. Kuban hazi zen Begoña, hantxe ikasi Medikuntza, baina Txile gogoan beti, herrira itzuli zen Pinochet burugabetu zutenean, 1990ean. Medikua da, eta ospitale handi bateko zuzendari Santiago hiriburuan. Han, organizazioa ez ezik, komunitatea du ospitalea. Ikastekorik franko dugula erakutsi digu Begoña Yarza Sáezek.

eta gizarte osasunaren kudeaketan prestatu nintzen, eta horretan naiz harrizkero, Txileko ospitale batean, zuzendari. Besterik? Begoña Yarza Sáez naiz, 1966an Rengon (Txile) jaioa. Izen maputxea duzu Rengo. Zazpi urte arte bizi izan nintzen han. Gero, zerutik jakina da, Pinocheten estatu kolpea etorri zen, eta lekua hustu beharra izan zuen gure familiak.

Oraintxe jo duzu iltzea buruan. Pinocheten kolpeak kolpatu zintuzten.

1973an hil zuten Salvador Allende. Nik sei urte nituen, baina konturatu nintzen, konturatu nintzen. Aita Rengoko alkatea nuen, Alderdi Sozialistako militante eta buruzagi herrian, eta preso hartu zuten. Ohiko epaiketa edo showa, “aberrriaren kontra jarduteagatik...”, eta hau eta hura, militarren erretolika, eta hogeituroko kartzela zigorra ezarri zioten, kontzentrazio-esparru batean betetze-koak. Alabaina, gure ama ez zen geldirik egotekoa, Eburo eta Garate nahastu zituen, hitz egin zuen Acnur, NBE, eta gisako erakundeekin eta gure aitari kartzela zigorra konmutatzea lortu zuen. Ordainetan, erbesteratu egin zuten, eta 1974an Txiletik aire! egin genuen bera-ekin batera: aita, ama, ahizpa nagusia –Anjela Aloña du izena, Oñatik mendiarengatik–, neba Simon eta bostok. 24 ordu eman zizkiguten herrialdetik irten gintzen, eta Argentinara jo genuen, ondoan dugulako. Aita preso eduki zuten kartzelako militarrek ez zeuden bera libre uzteko zeharo konforme, nonbait, eta nortasun kartilaren lehen orria txikitu zioten.

Izena ageri zuen orria.

Izena, sinadura eta gainerako jakingarri denak. Aireportura joan, eta ez zioten irteten uzten, baliozko agiririk ez zuelako. Air France konpainiarekin joatekoak ginen, eta bidaia-txartelak erosiak genituen. Mugazainek iragaten uzten ez, ordea. Ordu bat eta hogeituroko eduki gintuzten han, eta ordu bat eta hogeituroko egon zen gure zain Air France-ko kapitaina. Gu –ama–, urduri eta artaga, eta hegazkineko kapitaina, berriz, aldiro gure amari lasai egoteko esanez, aitararen zain egongo zirela. Halako batean, irteten utzi ziguten. Etxeko txikiena nintzen, eta aitararen eskutik helduta sartu nintzen hegazkinera. Sartu orduko, Air Franceko kapitainak gure aitari: “Simon

jauna, hegazkinean zaude, Frantziako lurra zapaltzen ari zara, faxismotik libre den lurra. Beraz, gizon librea zara hemen. Guretzat, heroi hutsa zara!”.

[Hunkiturik dago, malkoak ageri]

Hainbat hilabetetan estreinakoz baten batzuek ondo hartu zuten gure aita. Lehenengo klasean jarri gintuzten, guk ordaindu gaberik, eta txokolatinak eta zirenak eta ez zirenak eman zizkiguten. Aitak itxura penagarria zuen. Plastikozko poltsa bat zuen eskuan; barruan, kartzelan eduki zuen gauza bakarra: toalla bat. Gainerakoan, agure xaharra ematen zuen, eta ez zuen 40 urte ere. Inoiz ez da orduan bezain zaharra izan, ez hortzik, ileurdin, argal... Argentinara heldu ginen, baina aitak agiririk ez, eta atzera

Lehen aldiz Euskal Herrian

“1999. urtean Txiletik Bartzelonara joan nintzen doktoregoa egitera, eta orduan etorri nintzen estreinakoz Euskal Herrira. Donostiatik barrena sartu nintzen, mendiak ikusi nituen, euria ari zuen, dena berde, dena baserri... Aitaitari galdetua nion txikitik nolakoa zuen herrialdea, eta berak horixe esan zidan: ‘etxe zuri teila-gorriak’. Eta etorri, eta ikusi, eta aitaitak esandakoa ezagutu nuen. Berak esan zuen bezal-bezala zen! Eta hemengo janaria zen, eta ahogozatu, eta barru-barruan neraman gustua zen!”.

Haitiarrak

“Zoragarria da ospitalean haitiarrekin lan egitea. Oraindik sorginetan eta gisako aztikerietan sinesten dute, eta guk bat egiten dugu haien erritualekin. Haiek ezagutzeak Alejo Carpentier irakurtzera eramanez ninduen [El reino de este mundo, Mundu honetako erresuma], eta txundituta utzi ninduen. Liluragarria da”.

Txilera bidali nahi zuten. Baina hala beharra zer den, giza eskubideen aldeko abokatu talde bat zegoen han, baten baten zain, inondik ere, eta tartean sartu ziren, guri laguntzera. Eta sartzen utzi ziguten, baina emigraziokoek agiriak kendu zizkiguten; denoi.

Buenos Airesen?

Bai, Buenos Airesen, batere agiririk gabe, eta agiririk gabe ez ziguten hotelan ostatatzen utzi. Peronen bigarren aroa zen Argentinan, militarrekin bat eginda zebilen garaia. Gu, txiletarrak, ez ginen ongi etorriak. Azkenean, apaizgaitegi batean gertatu ginen, Buenos Aires erdian. Baina aitak ez zuen atertzen handik alde egin behar genuela esanez. Izan ere, han zen Juan Jose Torres ere, Boliviako presidente ohia, haren kontra estatu kolpea joa zuten urtebete lehena-go. Han zen Torres, beraz, bizkartzain eta guzti. Egun batean, lehergailua jarri zioten apaizgaitegiaren atarian, gu bertan ginela. Akabatu egin zuten, jakina. Aita, orduan eta konbentzituago: “Goazen hemendik!”. Eta erromesaldiari ekin genion, eta hirugarren ez, laugarren mailako ostatueta sartu ginen, non agiririk ez baitzuten eskatzen. Hantxe bizi izan ginen aldi batez. Gogoan dut polizia sekretua ostatura etorri izan zela, txiletar bila. Aita –aktore hutsa da!–, argentinarren modura hitz egiten hasi zen, bateko River [Plate] eta besteko Boca [Juniors], eta ama, bitartean, isilik. Ni, aldiz, duxara bidali ninduten ahizparekin batera, isilik egon nadin. Neba, ezkutatuta.

Zer dela-eta zebiltzan Argentinako sekretak txiletar bila?

Gerora jakin dugu. Hala Argentinako nola Txileko polizia eta paramilitarrek Condor plana zuten eskuartean, txiletarrak bahitzeko eta beste. Oso garai arraroa izan zen, kalera irteten ere ez ginela, gauez etxadiari egiten genion ordubeteko osteratxo izan ezik. Baina horrela ez zegoen bizitzerik eta enbaxada batera eta bestera jo zuen, asilo eske. Suediakoak, bi hilabeteko epean agindu zizkion agiriak. Kanadakoak, hainbat denbora. Kubakoak, hamabost egun. *Identidad y tránsito cubano*. Ez zen pasaporte, berez, baina nola-halako agiria, identifikagarria. Eta Kubara joan ginen 1974an, zortzi urte nituela. Hantxe izan ginen hamasei urtez.



Ezkerrean, Begoñaren aitaitak eta bi anaiek (Simon, Eladio eta Julian) oinetako fabrikari Yarman izena eman zioten: "Yar", Yarzarena, eta "Man", gizon, ingelesetik. Goian, Begoñaren aitari buruzko liburuaren ("La Extraordinaria Vida de Simón Yarza") aurkezpenean familiako hainbat kide. Aita ezkerretik laugarrena da.

ARGAZKIAK: YARZATARREK UTZIAK.

Kuban egin zenuen gaztetako bizimodu, hortaz.

Bai... Zoragarria iruditu zitzaidan Kuba. Harrezkero ez zait herrialde arrotza. Zoriontsu izan naiz han izan naizenean. Eguraldi beroa gustatzen zait, hezetasuna, goizetik arrats jendea barrez ikustea... Hain da erraza Kuban bizitzea! Gaztaro zoragarria izan nuen han. Ikasleen artean eskolako burua izan nintzen, ikasleen federazioko presidentea eta hau eta hura. Ikasgelakoak nazkatu ere nituen. Norbait bisitan etortzen zenean, lema bat esan beharra zegoen. Nireak zera zioen: *"El pueblo chileno..."* hasten nintzen ni esaten, eta nire ki-deek erantzun behar izaten zuten: *"...aplastará el fascismo"*. Pinochetena, alegia. Kuban bizi nintzen, kubatar, baina, aldi berean, Txile nuen gogoan. Irudi-

tzen zitzaidan Txile ahanzten banuen Pinochetek eta haren zaleek irabazia zutela borroka.

Zer diozu Kubako kontraesanen gainean?

Kuba beti izan da horrelakoa. Kubako iraultza kritikatzeko dutenak ere -Kuba barrutik, ez Miamiatik-, iraultzaile hutsak dira. Gehiago ireki behar duela, demokrazia handiagoa izan behar dela... bai, ados, prozesua hobetu behar da, baina ezkerretik. Okerrak egin dituztela, dudarik ez, kritika etengabekoa izan da. Prozesuak bihurriak dira, ez dira zuri ez beltz, eta iraultza bizirik dago, eta Miami joan diren kubatarrek ere Kubako estandarrak eskatzen dizkiote AEBetako gobernuari: osasun-sistema unibertsala, adibidez. Miamin daude, baina sozialismotik ari dira, ez eredu

neoliberaletik. Kubatik irten direnak ere ezkerreko ondarearen jabe dira.

Hamasei urte eta gero, Txilera itzuli zinen 1990ean.

Bai. Demokrazia berrezarri zutenean. Lehenengo, ni joan nintzen, bidea urratzera. Banekien niri errazago gertatuko zitzaidala aitari baino, ordurako 60 ur-tetsu izango baitzituen. Itzuli nintzen, Kubako medikuntza ikasketak balioztatu nituen, eta lanean hasi nintzen Santiagon [Txile], zerbitzari eta denetarik. Salsa irakasle ere jardun nuen, Kuban trebatu bainintzen dantzari. Sosik ere bildu nuen hortik. Horrela, familiaren itzulera prestatzeari lotu nintzaion, etxe bat errentatu nuen, hura egokitu... gurasoak etortzen zirenean gustura izan zitezen nahi nuen.

gure artean euskaraz

Euskara airean dago: egunerokoaren txoko guztietara zabaldu da, eta nahi duguna adierazteko eta lortzeko erabil dezakegu. Egin dezagun hegaz euskararekin eta euskaraz lagunekin, kideekin, neska-mutil berezi horrekin... noranahi heltzeko. Geure modura.

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

www.bizkaia.eus



Eta zein da zuen familiaren itzuleraren historia?

Aitari gertatu zitzaion gogorren. Dena dela, Santiagora etorri ziren, eta hura ez zen beraren mundua. Aldiz, Rengora itzuli zenean itzuli zen aita Txilera. Artean herria zen Rengo, han zituen aitek adiskideak, han historia... Alderdi sozialistan militatzen hasi zen berriro, zinegotzi hautatu zuten. Gazteek egin zioten kanpaina, erbestetik etorria gure aita Simon, heroitzat hartu zuten gazte haiek. On egin zion konbinazioak.

Eta zure historia?

Santiagon geratu nintzen lanean, pediatria.

Berrikuntza ederrik egina duzu Exequiel González Cortés ospitalean. Bertako zuzendari zara joan deneko hamasei urtean.

Tira... Modernitateak baliabideen kudeaketa agintzen du. Ospitalea organizazio bat da, zerbitzu-enpresa, eta hor, pertsonak dira gauza baliotsuena. "Giza baliabideak" dio administrazioak. Zer da "giza baliabidea", ordea? Pertso-

nak! Eta halaxe esan beharko litzateke: "pertsonak". Eta ez dira pertsonak huts, pertsonak, bata bestearekiko harremanean baizik. Ospitalea komunitate bat da -herria edo auzoa diren bezala-, eta haren helburu da pertsonen osasuna hobetzea: pertsonak dira helburu, gai-

"Maputxe elkarteko bat dugu ospitaleko harreran, maputxerik etortzen baldin bada hura behar bezala laguntzeko. Eta lehen bere jatorria aitortzen ez zigun maputxeak orain aitortzeko ezinik ez du".

xoak eta haien senideak. Elkarrizketa da inportanteena. Endoskopiak egiteko abilezia teknikoa izatea ez da dena, endoskopiak egiten dituen horren barnea zaindu behar da, bere egitekoa hobeto egingo baitu gure organizazioak pertsonatzat hartzen badu.

Eta zer ari zarete ospitalean kulturartekotasuna bultzatzen?

Hor dugu maputxe komunitatea, eta haitiarrak, eta peruarak... Eta beren organizazioak dituzte. Eta gure ospitaleko komunitatearen eta haien komunitateen arteko harremanak gauzatu ditugu, hau da, Ekintza Migratzailearen Mugimendurekin. Ez halako eta halako norbanakoarekin, haien organizazioekin baizik. Eta, horrela, maputxe elkarteko bat dugu ospitaleko harreran, maputxerik etortzen baldin bada hura behar bezala laguntzeko. Eta lehen bere jatorria aitortzen ez zigun maputxeak orain aitortzeko ezinik ez du. Maputxeen erritualak ospatzen ditugu ospitalean, haien jai guztiak. Eta berdin egiten dugu haitiarrekin eta perutarrekin. Esperientzia ikargarria izan da. ■

ARGIA

**EGITU, EGIOZU, ASTERO BERRITZEN DEN OPARIA
EREIN KAZETARITZA INDEPENDENTEA**

HARPIDETU:
 ARGIA ASTERO, HILEAN 12 € BAINO EZ.
 ARGIA HAMABOSTERO, HILEAN 7 € BAINO GUTXIAGO
 ARGIA HILERO, HILEAN 4 € BAINO GUTXIAGO

943 371545
 HARPIDE@ARGIA.EUS
 WWW.ARGIA.EUS/HARPIDETZA

Uste osoko harpidetza
 ARGIA
☐ ARGIA astero 12€ baino ez
☐ ARGIA hamabostero 7€ baino gutxiago
☐ ARGIA hilero 4€ baino gutxiago

Ongi etorri

Ongi etorri herri galdeketei. Gure Esku Dagok 2018ra bitartean ahalik eta herri eta eskualde gehienetan independentziari buruzko galdeketa egingo dituela iragarri du. Etxarri Aranatz eta Arrankudiaga izan ziren lehenengoak; arrakasta-tsuak, inondik ere. Parte-hartze altua izan zuten (%42,7 eta %61,5 hurrenez hurren). Erreferentzia gisa, Katalunian kontsulten birari hasiera eman zion Arenys de Munt herrian %41ekoa izan zen. Gerora etorri ziren gainerako galdeketen parte-hartzea puskaz txikiagoa izan zen, %20koa batez beste. Datu horiek ondo datozkigu kokatzeko, ehunekoek askotan marro egiten baitigute. Sinbolikoki bada ere, milaka herritarrek aukera izango dute urte luzez amestu eta borrokatu duten ariketa egiteko, alegia, Euskal Herriaren etorkizun politikoari buruz bere iritzia libre eta demokratikoki emateko. Badu bere munta, ariketa bera herri mobilizazioarako tresna aparta izan baitaiteke. Behin herritarrek publikoki erabaki nahi dutela irudikatzen dutenean, ez dago hori geldituko duenik. Urrats txiki bat eman eta gero, hartutako norabide horretan sakontzeko joera dugu pertsonok.

Ongi etorri EAEko hauteskunde autonomikoei ere. Alderdiak hasi dira hautagaiak aurkezten eta demoskopia ere jarri da zita garrantzitsu horri begira. Azken Soziometroaren arabera, duela lau urte EH Bilduren emaitzek agertoki politikoari astindua eman zioten bezalaxe, oraingoan ere aldaketa nabarmenak etor litezke. EAJk nahiko ondo eutsiko lioke Ahal Duguren boto-hozkadari, baina besterik da gobernua osatzea. Estreinakoz, posible izan liteke ezkerreko indarrak batu eta agintea hartzeko akordioa osatzea. Emaiza hori izango balitz, gakoetako bat zentraltasun politikoan egongo



Estitxu Garai Artetxe

EHUK-O IRAKASLEA

@egarai

Azken Soziometroaren arabera, duela lau urte EH Bilduren emaitzek agertoki politikoari astindua eman zioten bezalaxe, oraingoan ere aldaketa nabarmenak etor litezke

litzateke: elkarriketatarako ardatza nork eta non ezarriko duen. Badirudi tenore hori EH Bildurentzat egokia izan daitekeela, Ahal Dugurekin alor soziala eta EAJrekin abertzaletasuna partekatzen baititu. Hala ere, jakina da EAJ ondo mugitzen dela horrelako dantza-leku labainkor eta aldakorretan –bat bi, ezker eskuin, autonomista independentista– eta egoeraren lema hartzen ahalginduko dela. Ahal Duguren *swing*a ez dugu ezagutzen, ez eta Madriletik tango estuan lotuko duten ala ez. Irudi lezake inkestak inkesta direla eta dantzarako

benetako akordeak ezagutzeko hauteskunde gauera arte itxaron beharko dugula, baina, orain arteko mugimenduak ikusita, litekeena da kanpaina osoa parametro horietan ardaztea.

Ongi etorri, Arnaldo Otegi. Inor gutxi ausartuko da ukatzen euskal politikagintzari ekarpen nabarmena egin dion pertsona dela eta aurrerantzean ere zer esan handia emango duela. Bere egitekoa zein izango den, alabaina, ez dago argi, berezkoa duen baikortasun eta karisma beharrezkoa izan baitaiteke bai barnean bai kanpo mailan. Batetik, *Abian* eztabaidaren bidez hausnarketa estrategikoan buru-belarri murgilduta dagoen ezker abertzalearentzat, barne-kohesiorako eta borrokako grina eta kemena suspertzeko akuilu izan daiteke, eta horretara bidera ditzake indarrak. Bestetik, Espainiako hauteskunde orokorretarako emaitzek erakutsi dute kanpo-komunikazioan eta hautesleriaren aktibazioan ere EH Bilduk premia bizia duela. Komunikazioari dagokionez, ezker abertzaleak historikoki beti eduki du gaitasuna eztabaida politikoan marko kontzeptual propioak txertatzeko eta herritarrok gure egin ditugun terminoak plazaratzeko. Bada, azken aldian, *mass medi*aren bultzadak lagunduta, aurkari gogorra irten zaio Madril aldetik. EH Bilduk Podemosekin duen norgehiagokan giltzarria zera da: independentzia izatea beste eredu sozial eta ekonomiko baten alde egiten dutenen apustua eta, hortaz, EH Bildu izatea herritarren burujabetza sozialerako tresna. Horren ardura Otegiren bizkar gainera botatzea lar izango litzateke, baina aintzat hartzekoa da zenbaitetan aski dela pieza bat gaizki jartzea *tetris*aren osaketan kale egiteko. EH Bilduren oinarri sozialek eta Arnaldo Otegik berak hausnartu beharreko kontuak dira. ■

Eskubideen karta

Neure buruari aitortzen dizkiodan eskubideen karta. Burlatan emana, 2016ko otsailaren 29an.

1. Neure buruari aitortzen diodan lehen eskubidea neure buruari nahi adina eskubide aitortzeko ahalmen ezin kenduzkoan datza. Ahalmen edo askatasun hau besteena hasten den tokian amaitu ez, eten baino ez da egiten, aldizkakotasunak ez baitakar mugagabetasunaren ukoa.

2. Neure buruaren defentsan, edota edertasunarenean, gezur esateko eskubidea niretzat hartzen dut, are errima egitekoa ere, beste irtenbiderik ezean.

3. Betiere eskubide ezin ukatuzkoa hartzen dut:

- a) Irratia amatatzeko.
- b) Liburu bat amaitu gabe uzteko.
- c) Zutabegile bat gehiagotan ez irakurtzeko.
- d) Festa bat abandonatzeko.
- e) Olerki bati hastio hartzeko.
- f) Pentsalari bat seriotan ez hartzeko.
- g) Solasa ahalik eta azkarren eteteko.
- h) Neure buruaz beste egiteko.
- i) Zerrenda bat amaitu gabe uzteko.

(Norbaitek / Egileak / Ø)

- a) Ezjakintasunaren apologia egiten duenean.
- b) Aspertzen naizenean.
- c) Hirutan jarraian gai berbera jorratzen duenean.
- d) Buruko mina eragiten badit.
- e) Gauzak oso argi dituenen (eta, zer esanik ez, ni hartaratzeko gogo agerikoa duenean).
- f) Bera partaide duen taldekoka ez balitz bezala diharduenean.
- g) Talde gutxitu, baztertu, zapaldu batekiko nagusitasun jarrera erakusten badu.
- h) Merezi ez duenean.
- i) Aipu segida ia landu gabea botatzen duenean.



Angel Erro

IDAZLEA

@angelerro



Antton Olariaga

- j) Ez badut tutik ere ulertzen.
- k) Atzerriko hizkuntza guztiak ingelesaren maneran ahoskatzen baditu.
- l) *Nutella* nahiago badu.
- m) XIX. mendea baino lehenagoko ezer gutxi interesatzen zaiola esaten badu.
- n) XIX. mendearen ondorengoko ezer gutxi interesatzen zaiola esaten badu.
- o) Gose banago.
- p) Kultura orokorreko ezagutza ertainak xeheki azaltzen badu, munduari berak azalduko balizkio bezala.

(Atal honetan aipatu eskubideek eta baldintzek ez dute hurrenkera berezirik, eta beraz, elkarrekiko edozein lotura edo bat ere ez egin dezake eskubidedun subjektuak)

4. Gaurtik aurrera badut une bakoi-tzean nagoen herrialdeko herritarra izateko eskubidea. Modu berean, neure buruari ematen diot une bakoi-tzean irakurtzen ari naizen liburua- ren egilearen herrialdeko eta garaiko herritarra izateko eskubidea (eleberri historikoak salbuetsita gelditzen dira).

5. Neure buruari aitortzen dizkiodan bestelako eskubideen artean hauek ere badaude:

- a) Emakumeei ateetan edo eskaileretan igotzean lehenago pasatzen uztekoa, mikromatxismoagatik, eta gauza bera gizonezkoei, ez guztiei, lizunkeriagatik.
- b) Gauza guztien gainean iritzi osatua ez izatekoa.
- c) Mundua, halere, aldatzen saiatzekoa.
- d) Topikoak betetzeko.
- e) Nire lagunak etsai eta ez ikusiak ez konpartitzeko.
- f) Ordu oro ergatibo bat huts egitekoa.
- g) Txukuna ez izatekoa.
- h) Txakurrei eta nirekin erdaraz egiten duten guraso euskaldunen seme-alabei euskaraz ez hitz egitekoa.
- i) Originala ez izatekoa. ■

Zaborrak nonahi!



Iñaki Barcena
EKOLOGISTAK
MARTXAN-EKO KIDEA

Zaborrak nonahi!", kantatzen dute Gipuzkoako gazteek. Azken udal hauteskundeek Gipuzkoan aldaketa politikoa ekarri zuten, EH Bilduk aginte makila EAJri pasatuz. Askoren ustez, hiri hondakinen politika izan zen gako nagusia gipuzkoarren boto aldaketan. Kuriosoa da, Europar Batasunetik Gipuzkoako zaborren politika eredugarritzat jotzen zenean birziklatze eta gutxitze tasa altuengatik, Espainiako Estatuarenak altue-
nak izatea. Atez ateko bilketaren aldeko politikak jokoz kanpo utzi zuen EAJk, PSEk eta PPk Zubietan eraiki nahi zuten errauskailua. Alabaina, gipuzkoarrek Aldundiak bankuekin 2011ko hauteskunde-
en aurreko astean sinatutako berme finantzariak (*swapak*) "bermatzen" jarraitu behar izan zuten. Demokraziaren eta ekonomiaren gaineko hainbat ikusmira egon ziren lehian lau urtez. Gipuzkoako herri batzuetan atez ateko bilketaren aurkako "kontramugimenduak" sortu ziren eta komuni-
kabide nagusiek kanpaina sutsu bat egin zuten EH Bilduren gobernuaren aurka, zarama politika erdigunean egonik. Zaila da jakiten, errauskailuaren bazterketa eta atez ateko politika gobernu aldaketaren zio printzipala izan ote zen, baina
duda izpirik ez dago zaborren auzia oso presente egon zela 2011-15 legealdi osoan eta hauteskunde kanpainen ere bai. Zaborrak nonahi.

Santandererako bidaia, merkea ote? Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak zor handiak

ditu La Caixa eta Banesto bankuekin *swap* engatik (50 milioi euro inguru) eta hiri hondakinen kudeaketa oso problematikoa izan zaio zabor-
tegien faltagatik. Soluzioa: zaborren tarifak igotzea (%20 errefusarentzat eta %44tik gora organikoarentzat) eta hiri hondakinak Meruelo-
ko (Kantabria) zabortegira eramatea. Herrialde txikia da Gipuzkoa eta populatua. Azken urteotan birziklatze tasa altuak lortu dituzte hainbat
bailaratan (Debagoienan, %80 gaika biltzen da) baina gehien birziklatzen duten udalerri horiek kaltetuen aterako dira prezioen gorakadagatik.

Bizkaiaeren eredurantz? Aspaldian entzun genion Bizkaiko zarama politikaren arduraduna zenari, Iosu Madariagari, Euskadin errauskailu batekin nahikoa zela. Zergatik ez dira eramaten
Gipuzkoako zaborrak Bilboko Zabalgarbira? Ez al da negozioa? Hamar urteotan Zabalgarbik eman-
dako emaitza ekologiko zein ekonomikoak ez dira batere erakustekoak. Bizkaian birziklatzea %40 ingurukoa da, errausketaren hautsak ez dira
behar bezala tratatzen eta produkzio elektriko txikia iruzurrez zenbatzen da eta CO2 isurtzen duten instalazio industrialen rankinean bosga-
rrena da, Petronor (Muskiz) lehenengoa izanik. Eredugarri? Alfonbra azpiko politikak ez dira
onargarriak, zarama politika funtsezkoa baitugu udalerri orotan. Bakoitzak bere ereduaren bila
urratsak eman bai, baina bide laburrik ez! ■

Euskal streaming



Joanes Etxebarria
KAZETARIA

Behin ezin nintzelako bertan egon, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Internetetik segitu nuen, streaming bidez. Orduan pentsatu nuen, nahiz eta sarean zuzenekoak ohikoak izan, soilik gurean gerta zitekeela halako zerbait; jende andana pantaila aitzinean akapela kantari ari ziren zortzi pertsoneri begira egotea, zuzenean.

Azken euskal streaminga askoz ere harrigarriagoa iruditu zait. Hori ere, soilik Euskal Herrian gerta zitekeen, edo beste herri gutxitan: preso bat kartzelatik ateratzen ikus zitekeen zuzenean Internetez. *Garan* irakurri zitekeen Arnaldo Otegi-
k dudatzen zuela ea gazteekin lehengo konexio

berdina lortuko ote zuen sei urteko kartzelaren ondotik. Artikuluak zioen kontziente dela sei urte eta erdian mundua asko aldatu dela eta teknologia berrien garapenaz ahal bezala jabetu dela ziega barnetik.

Zuzenbide ikasketak, irakurketak eta bisita desberdinen artetik *trending topic* zer den irakurri ahal izan badu, gutxiago harrituko zen ateratzean. Minutu batzuetan sare sozialetan aipagai nagusia da *trending topic*. Otegi, haatik, epe luzeko aipagaia da, eta behingoz, ez dut dudarik streaminga itzaltzean gaia ez dela desagertuko. Honki jin Otegi, honki jin Lorentxa. #FreeThemAll. ■

Espezializatuuegiak

baizabaleko itsasadarraren ezker ibarrean, Bizkaian, ekonomia *monokultibo*aren gertuko eredurik nabariena izan dugu. Siderurgia eta metalurgia-
ren eremua izan zen, lantegi eta labe garaiak izan ziren Ezkerralde osoaren bizitza ekonomiko eta soziala sektore hauek gidatu zutenak. Gauza berbera esan dezakegu Enkarterri eta Meatzaldeari buruz, burdin meategien *monokultiboa* baitzegoen. Azken eskualde horretan, meatzaritza amaitu bezain laster ekonomiaren gainbehera izan zen, gaur egun arte. Ezkerraldeari so eginez, antzeko zerbaite gertatzen ari da, azken industria handiek galtzeko arriskuan baitaude, ArcelorMittal Sestao honen adibide izanik.

AEBko hiri famatu batean antzekoa gertatu zen. XX. mende hasieran, Detroit hiriko ekonomia autogintzan espezializatu zen, *monokultiboa* bilakatu. Mende amaieran sektoreak beste herrialdetara alde egin zuen, ekonomikoki hiria hustuz. Egoera hau *From Detroit to De(s)troit* dokumentalak oso ondo erakusten du.

Horrelako ekonomia hondamendiak ugariak izan dira historian, gure erreferentzia eskualdea bada, sistema ekonomiko kapitalistaren funtzionamendua-
rekin lotura estua du. Hau da, denbora



Endika Alabort Amundarain

EKONOMIALARIA

@autogestia

Industria sektorearen etorkizuna gero eta ilunago denean, badirudi turismoa gure ekonomiaren salbatzailea izango dela; horrela adierazten dute agintari politikoek

tarte batean, eskualdean ekonomiaren “espezializazioa” bultzatzen da, irabazi-tasak handituz eta lehen aipatutako *monokultiboa* oso adierazgarria izaki. Noski, irabaziak murrizten direnean, inbertsioak beste eskualde eta lurraldeetara mugitzen dira eta lurraldea

nola geratzen den, bost axola kapitalari. Desindustrializatzeko prozesuak horren ondorioak dira. Gainera, ekonomia eta gizarte hondamendi hauek larriagoak izaten dira sektore horiek nazioarteko merkatuen edo enpresa trasnazionalen esku daudenean.

Industria sektorearen etorkizuna gero eta ilunago denean, badirudi turismoa gure ekonomiaren salbatzailea izango dela; horrela adierazten dute agintari politikoek: BPGn duen eragina gero eta nabarmenagoa da. EAEn, %5,8. Nafarroan, %6. Sortzen duen enplegua gero eta handiagoa da, lan baldintzak aparte utziko ditugu eta “kalitatezko” turistak erakarri nahi ditugu. Hau da, kultur maila handikoak, aberatsak edo diru mordera gastatzen dutenak.

Arriskua da, industria gainbeheraren ostean, turismoa eskualde askotan gure *monokultibo* berria bilakatzea. Ez dugu ahaztu behar sektorea enpresa trasnazional batzuen menpe dagoela, eta gure eskualdeetako eskaintza zirkuitu horietan txertatzen dela (landa turismoa hauetatik kanpo dago). Turismo ereduari buruzko eztabaida publikoa eta kritikoa falta da, beste sektoreetan izan ditugun arazoak ekiditeko. Datozen turistak, joango dira, gure bizirauteko beharra, aldiz, hemen geratuko da. ■



Liburu azoka

Amurrion, apirilaren 14tik 17ra Juan Urrutia plazan

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!

**ARABAKO
BERTSO
KUADRILLA
2016
ARTEKO
ARGANTZUN
FINALA-JAIA**

MARTXOAK 12, LARUNBATA

11:00etan, AUTOBUSA

Gasteizko Iparralde Gizarte Etxean

11:30ean, Argantzungo plazan, HITZORDUA

12:00etan, Herri osoan zehar. Bat-bateko eta idatzizko taldeekin ERRONKAK

14:30ean, BAZKARIA, plazan (Eguraldi txarra eginez gero frontoian) (12€) izena emateko deitu Arabako Bertsozale Elkartera: 675-707-97

16:30ean, BERTSO-SAIO MUSIKATUA

17:15ean, BERTSO-GUDA

18:30ean, ELEKTOTXARANGA herrian zehar

20:30ean, BOCEGILLAS SOUND-SYSTEM

BERTSO RAGGA Aroztegi tabernan



www.bertsozale.eus/araba



ASTEKO GAIA

ESNE EKOIZLEAK EUROPAKO MERKATU LIBREAN GATIBU



Ezagunak zaizkigu irudiak. Esne orbanak zoruan zabaltzen, zisterna kamioietako iturriak irekita dauzkate esne ekoizleek, litro bakoitzeko jasotzen duten prezioa baxuegia dela salatzen. Keinua esanguratsua da. Hain justu, iturria neurrigabe ireki izana leporatzen baitiote abeltzainek Europar Batasunari. Halako protestak izan ziren iaz, Europak produkzioaren gaineko kuota sistema ezabatu zuenean. Kuoten indargabetzetik urte bat betetzear dela, esnearen prezioak apalegia izaten jarraitzen du eta ekoizleen egoera larriak ez du erantzunik.



Gorka Berasategi

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Europak kuota sistema alboratu eta esne produkzioa liberalizatzeko beste urrats bat ematea erabaki zuen joan den urteko apirilean. Ustez, mundu mailako eskariari erantzuteko balioko zuen neurriak, merkatu berrietara salto egiteko, baina produkzioaren eta eskariaren arteko desorekak handiegiak izan dira. Kanpo faktoreei dagokienez, Txinak ez du espero zen besteko esne beharrik izan eta Errusiak Europako hainbat produkturi ezarritako betoak kalte egin die esne esportazioei. Europa barruan, berriz, espero zitekeen moduan, ekoizpenak gora egin du. Ondorioz, esne soberakina handitu egin da eta horrek merketu egin du ekoizleek esne litro bakoitzeko jasotzen duten prezioa. Euskal Herriko ekoizle gehienek kasuan, ekoizpen kostuen azpitik dago prezio hori eta egoerak estu hartuta dauka sektorea.

Merktuaren liberalizazio prozesuak azken bi urteetan izan duen eragina jaso du COAG espainiar estatuko ekoizle elkartearen txostenak. 2013ko azarotik 2015eko azarora bitartean, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian produkzioak %4,9 egin du gora. Nafarroan dezente gehiago hazi da ekoizpena: %15,5. Ekoizleei esne

litroko ordaintzen zaien prezioa, berriz, %16,5 murriztu da Nafarroan eta %11,4 Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian.

Joerak are nabarmenagoak izan dira Europan. Nahiz eta azken bi urteetan produkzioaren hazkundea batez beste %7koa izan den, Irlandak, esaterako, %29 handitu du esne ekoizpena. Hazkundea %23,4koa izan da Luxenburgon, %16koa Belgikan eta %14,7koa Herbehereetan. Prezioen jaitsierak ere bortitzak izan dira. Batez beste, %23,7 egin dute behera. Alemanian, esne gehien ekoizten duen herrialdean, prezioak %29,5 murriztu dira, eta Belgika, Herbehereak, Lituania, Letonia eta Estonian, aldiz, %30 baino gehiago merketu da esne litroa.

Ekoizle elkarteek salatu dutenez, merktuaren gaineko kontrola desagiteko urratsak ez dira berriak Europan eta 30 urtez indarrean egon den kuota sistema indargabetzea azken urratsa izan da.

Mixel Berhokoirigoin ELB sindikatuko kide eta Laborantza Ganbarako presidente ohiaren esanetan, "kuota sistema ofizialki duela urte bat desagertu zen baina liberalizazio prozesua abiatua zen lehenago. Europa emeki-emeki sartua

zen trantsizio garai batean eta ekoizpen orokorra hiru edo lau urtez emendatu dute". Berhokoirigoinen ustez, Europa merkatua prestatzen aritu da azken urteetan. Batetik, soberakina egotea bultzatu du eta, bestetik, interbentzio publikoa murriztu. Interbentzioaren bidez, Europako erakunde publikoek soberakina erosten dute, produkzioaren zati bat merkatutik erretiratu eta prezioan eragin ahal izateko. Berhokoirigoinen salatu duenez, ordea, "jada hor baziren neurri batzuk hartuak kantzitate gutxiago erosteko eta beraz, esnearen prezioa lehendik ere nabarmen jaitsia zen".

Azken urteetako politikek arrisku biziari ipini dute baserriar askoren etorkizuna. EHNE sindikatuak ohartarazi du, gaur egun, 900 baserri inguruk ekoizten dutela esnea Hego Euskal Herrian, duela hamar urte baino askoz ere gutxiago. Orduan, 2.100 baserri inguru ziren. Ekoizle kopuruak beherantzko joeran jarraitzen du eta ez da harritzekoa. Esne litro bakoitzeko kostua 0,35 eurokoa den arren, baserriar gehienek kasuan jasotzen duten prezioa kostuaren azpitik dago.

Aringarriak bai, erantzunik ez

Sektorearen krisiak ez du erantzunik jaso Europan aldetik. Batasunak onartu dituen diru-laguntza politikak ekoizleentzat aringarriak diren arren, ez dira nahikoa izan arazo estrukturaleri aurre egiteko. Berdin gertatu da Espainiako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak onartu dituzten laguntzekin ere. EHNEko Garikioitz Nazabalen ustez, "Ministerioak laguntza batzuk jarri zituen martxan egoera salbatu ahal izateko eta esan genuen hemen oso baserri gutxira iritsiko zela neurri hori. Eusko Jaurlaritzak eta aldundiek laguntza batzuk onartu zituzten baina egoerari aurre egiteko benetako aldaketa prezioetan behar da".

» 2013-2015 tartean %4,9 handitu da produkzioa EAEn; Nafarroan %15,5. Prezioak, berriz, %11,4 eta %16,5 jaitsi dira hurrenez hurren

» Azken bi urteetan batez beste %7 handitu da Europar Batasuneko ekoizpena. Prezioen beherakada, berriz, %23,7koa izan da

» EHNE sindikatuak ohartarazi duenez, gaur egun 900 baserri inguruk ekoizten dute esnea Hego Euskal Herrian. 2005ean 2.131 ziren



Espainiako Gobernuak esnea berriz balorizatzeko akordioa bultzatu zuen sektoreko industria eta distribuzioarekin, joan den udazkenean. Hainbat abeltzain elkartek, tartean EHNEk, ez zuten onartu, ordea. Nazabalen esanetan, “industria eta distribuzioaren betebeharrak borondatearen menpe uzten ditu hitzarmenak eta ekoizleak ez du babes juridikorik. Esan genuen denbora beharko zela ikusteko akordioa zenbateraino betetzen zen eta frogatu da azkenean ondorioak hutsalak izan direla”. Akordioa sinatu eta hilabete gutxira, Espainiako Estatuan ugaritu egin dira esne ekoizleen salaketak, industriako hainbat enpresak esnea bildu gabe utzi

eta kontratuak errespetatzen ez dituztela eta.

Hego Euskal Herrian, ekoizleen antolaketa kooperatiboaren eraginez, gutxiengo batek pairatzen du industriak kontratuak ez betetzea. Zentzu horretan, Nazabalek adierazi duenez, “distribuzioaren aldetik batzuk behintzat jarrerak lasaitu dituzte”. Aldiz, baserri-tarrek jasotzen dituzten prezioak baxuegiak dira oraindik.

Esne ekoizleek argi dute sektorearen etorkizuna bermatzeko modu bakarra produkzioaren eta prezioaren gaineko esku-hartzea dela. Frantziak joan den urtean esne industria eta distribuzioarekin bideratu zuen akordioa dute hainbat

ekoizle elkartek babes politiken eredutzat. Esne litroko gutxienez 0,34 euro ordaintzea adostu zuten sinatzaileek Frantzian, baina ELBko Berhokoirigoinen esanetan, akordioak ez du funtzionatu bi arrazoiengatik. “Batetik, Frantzian ekoizten den esne bolumenaren %15 zen soilik akordio horrekin hunkia. Produktu batzuen inguruko akordioa zen: gurina eta UHT esnea. Beraz, akordio horrek ez du esne produkzio osoaren prezioa baldintzatzen. Beste aldetik, Europar dogma nagusia merkatu libre eta konkurrentzia dira. Europako Komisioak kontsideratu du akordioak konkurrentzia hausten zuela eta inkesta bat abiatua du akordio ilegala izan delakoan”.



EUSKAL HERRIA
esnea

Dastatu betiko esnearen zaporea



www.euskalherriaesnea.com · arreta@euskalherriaesnea.com · 618 829 964



Ezkerrean, EHNE sindikatuak marmitetan idatzita aurkeztu zituen datuak, sektorearen egoera azaltzeko iazko abuztuan Donostian emandako prentsaurrekoan. Goian, EHNEk Iruñean deitutako elkarretaratzeari, iazko irailean.

ARGAZKIAK: EHNE

Bertako babes politiken beharra

Europak esne sektorea merkatuaren esku utzi eta produkzioaren hazkundera sustatzen duela ikusita, EHNEk ezinbestekotzat du EAE eta Nafarroako erakundeek bertako ekoizleentzako babes politikak martxan jartzea.

Joan den urteko udazkenean, sektoreko ekoizle eta industria ordezkariak bildu ziren Eusko Jaurlaritzaren batekin, eta Nafarroako Gobernuarekin bestetik, elkarlanerako aukerak aztertzeko. Bi exekutiboek uste dute onura handikoa litzatekeela sektorean akordioa lortzea. Horretarako, Jaurlaritzaren iritziz, lehentasuneko kontua da ekoizleak kooperatibetan antolatu eta transformazio sektorean integratzea. Bestalde, Nafarroako Gobernuaren ustez, posiblea da zenbait babes neurri bultzatzea. Esaterako, bertako esnea erosten duen industriarako laguntzak eskaini, mendialdeko esne ekoizleentzako diru laguntzak onartu, edota ospitale eta eskoletako jantokietan bertako esnea kontsumitzeko hitzarmenak sinatzea.

Nazabalen ustez, esne ekoizlea babesteko, "zikloa bertan itxi behar da, produktua hemen kontsumitu dadila, balio erantsiaren zati bat baserritarrengana iristeko". Izan ere, esnearen balio katean mailarik ahulena ekoizlea da egun. "Batez ere hain produktu galdu

errazarekin ari garenean. Azkenean, esnea entregatzen duzu edo kamioitik behera joan behar du". Nazabalek salatu duenez, prezioa kalkulatzeko alderantzizko ariketa egiten da. "Aurrena saltzailearen irabazi tartea, industriarena gero, eta gelditzen denarekin, ganaduzaleari ordaindu. Prozesua ezin da horrela planteatu".

Dendetan esne litro bat erosten dugun bakoitzeko, baserritarrengana zenbat diru iristen den argitzea nahitaezkoa da Nazabalen iritziz. Prezioen gaineko garrantasuna bermatzeko neurriak eskatu zizkien EHNEk Nafarroako eta EAEko gobernuei. Hala, kontsumitzaileak bere erosketarekin dirua nora bideratzen duen jakingo du. "Kontua ez da erostunek, familiekin, prezio altuak ordaintzea. Kontua da inork gehiegizko irabazi marginik ez aplikatzea eta dirua behar den tokira iristea".

Mixel Berhokoirigoinen ere bertako ekoizleentzako neurrien premia azpimarratu du eta Frantziako Alpeetako eskualdean bultzatu diren neurriak hartu ditu eredutzat. "Behi esne ekoizpena antolatu dute sor-marka baten inguruan, kalitatearen inguruan, araudi zorrotz batekin eta ekoizpen kantitatea mugaturik. Haiek jasotzen duten esne prezioa esne klasikoarena baino %50 gehiagoa da".

1.^{goa} Ekoizpen Integratuko ABELTZAINEN ESNEA

Maila internazionalen saritua

BENETAKO ESNEA "L" -Z IDAZTEN DA

lacturale

[f](#) [t](#) www.lacturale.com

jan baserritik

20491 Leaburu · ☎ 943 670 724

www.mahalanaturala.com

Moyua
hileta zerbitzuak

Zure momentu zailtarako

Otadui Gotzaina, 27 · 20560 Oñati (Gipuzkoa)
☎ 943 783 447 / 617 442 466
www.tanatorio-gipuzkoa.com

Produkzio eredu industrialean babesik ez dela ikusirik, zenbait ekoizle beste bide batzuk jorratzen ari direla dio Berhokoirigoinek. Salmenta zuzena, esne ekologikoaren ekoizpena edota produkzio eredu ahalik eta autonomoen aldeko apustua dira prezio baxuen lehia ekiditeko hiru bide.

Berhokoirigoinen arabera, erakunde publikoek lagundu egin behar diete sistema intentsifikatutik sistema autonomoagoetara aldatu nahi duten abeltzainei. “Trantsizio horrek bost urte irautzen du eta gero beste oreka bat atzematen da, ekonomikoki hobea dena. Hor ematen den dirua ez da debalde”.

ARGIAk esne industriaren ikuspuntua ere jaso nahi izan du. Kaikuren eta Iparlaten iritzia biltzen saiatu gara, baina ez dugu lortu.

Europatik zer espero?

Esne ekoizleen aldarrikapenenean eta sektorearen egoera larriak Europako zenbait estatu eraman ditu merkatuaren gaineko esku-hartze neurriak eskatzera. Frantziak, Espainiak, Portugalek eta Italiak interbentzio publikoa indartzeko eskatua diote Europari, ikusirik joan den irailean hartu zituen neurriek ez dutela prezioan nahikoa eraginik izan.

» Europak kuota sistema alboratuta, esne soberakina handitu eta prezioa merketu da. Euskal H erriko ekoizle gehienentzat ekoizpen kostuen azpitik dago prezio hori

» Esne ekoizleek argi dute sektorearen etorkizuna bermatzeko modu bakarra produkzioaren eta prezioaren gaineko esku-hartzea dela

Produkzioa murrizteko prest agertzen diren ekoizleei diru-laguntzak ematea ere proposatu du Frantziak eta esne sektorearen behatoki bat sortzea, merkatuaren joeren aurreikuspenak egin eta ekoizpenean soberakinak ekiditeko.

Europatik ezer gutxi espero daiteke, ordea, Garikoitx Nazabalen esanetan. “Nahiago nuke kontrol mekanismoen alde egingo balute, baina kezka sortzen zait TTIPen gisako akordioetan pentsatzen ikusten ditudalako gehiago, nekazaritza kolektibo bateratuaren oinarrietara bueltatzen baino. Une honetan Europaren zain egotea denbora galtzea izango litzatekeela iruditzen zait”.

Horregatik, nabarmendu du Nazabalek, Euskal Herriko erakundeetatik bulztatu daitezkeen babes politiketan dago gakoa. “Oso larria litzateke administrazioen partetik esne sektorea distribuzio eta industria jakin batzuen interesen arabera antolatzen uztea. Horrek azkeanean, lurralde garapenean eta landa inguruetako errealitatean daukan eragina izugarria baita. Herrietako bizimodua ezin da interes komertzial batzuen arabera antolatu. Lurrarekin lan egin eta landa eremua zaintzen dugunok ezin badugu gure lanetik bizi, landa herrietako bizimodua ere arriskuan egongo da”. ■





dokumentalak.com

Euskarazko dokumentalen biltegia sarean

Ostiralero lan berri bat ikusgai

230 dokumental baino gehiago ikusgai

Zipotzak 30 urte

Egiaren hazia

Desobedientzia, elkartasunetik konpromisora

Azaroak 20, zorigaitzeko eguna

Bide berriak: elikadura burujabetza Euskal Herrian

Behobia-Donostia: 20 kilometro, mila istorio

Kondor Legioa

Gernika Batailoia. Askatasunaren ametsa 1945-2015

Armadillo

40/24 Txiki eta Otaegiren ondarea

Atzoko enborrak, gaurko ezpalak

Goazen gudari danok

Lurra, lana, izana

Batzarre

Ezkutuko amandrea

Arrakala -zirrikutu bat haitzean-

Gerorik ez da

Mugaritz BSO

Jon Salaberri

Eutsi edo hil

Trikifollia

Perretxikoak, basoetako altxorrak

Herriaren bihotza

GURS: Euskaldunen infernua 70 urteren ostean

Xabiertxo liburuak 90 urte

Dantzan: erabakitze eskubidearen aldeko lorpen feministak

Hilario Arbelaitz sua eta eskua

Malenkoniaren 3 gelak

Haziak - Herri Unibertsitateen loratzea

Ttipi ttapa

Korrika 1980 - 2007

Gu euskahaldunak gara

SlackLine: Grabitateari Erronka

Baso ahaztuak

Badira bagara

...eta askoz gehiago

**Zure lanen bat kanal honetan sartu nahi baduzu,
jarri gurekin harremanetan:**

multimedia@argia.eus

www.twitter.com/dokumentalak

www.facebook.com/dokumentalak

ARGIA



Jose Luis Mendoza

“ERABAKIAK MILA BIDER AZALDUAGATIK KOMUNITATE HONETAN AURREJUZGU PILA BAT DUGU”

Patata beroa egokitu zaio Nafarroako Hezkuntza kontseilariari: Lan Eskaintza Publikoa, D eredua, Ingelesez Ikasteko Programa, LOMCE... Konfrontazio eremu bilakatu dira euskara eta hezkuntza Nafarroan, eta erdi-erdian harrapatu du Jose Luis Mendoza (Carcar, 1954); oposizioak, Gobernukideek, sindikatuak eta hezkuntza eragile hainbatek kritikatuak. Egoera argitu nahian jo dugu harengana.



Mikel Garcia Idiakez

@mikelgi

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Hurrengo ikasturterako aurre-matrikulazio datuak argitaratu dira. Eskola publikoan D eredua lehenengoz izango duten eremu ez euskaldunetan, informazio gabezia salatu du hainbat eragile eta gurasok. D eredua sustatzeko kanpaina edo estrategia falta izan zaio Gobernuari?

Gure betebeharra da eredu publikoaren aldeko kanpaina egitea, hori izan da gure ardatza. Horrez gain, D ereduan matrikulatzeko aukera zutela azalduz gutuna bidali genien eremu ez euskalduneko gurasoei. Gure webean ere informazioa jarri dugu, ikastetxeetara bidali dugu, eta eskoletan jarraipena egin dugu. Beti esan dugu: edozein irregulartasun gertatuz gero, salatu, ikuskarriak badaude ikastetxeetan, eta bestela Hezkuntza Departamentuarekin jarri harremanetan zuzenean; informazio faltagatik salaketa bakarra jaso dugu. Entzun edo irakurri dugu, guraso batzuk berdinez kexatu direla, eta egia da gertatzen dela, ikastetxera joan, haurra eredu batean matrikulatu nahi duzula erran, eta “hemen ez dugu eredu hori” jasotzea erantzun bakartzat, baina zure betebeharra da hori salatzea. Eta zurrur-

murruetatik harago, ez dugu espresuki salaketa gehiago jaso. Dena den, kon-tuan hartu behar da aurre-matrikulazio kanpaina dela eta aurreikusten genuela informazio falta edo desinformazioa egon zitekeela; ekainean egingen dugu benetako matrikula, irailan egin daiteke azkeneko matrikula, eta pentsatzen dugu tarte horretan hainbat gurasok birpentsatu edo iritiz aldatu dezaketela. Benetan arazorik badago, konpontzeko garaiz gabiltza.

Eremu ez euskaldunetan D ereduan haur gutxi matrikulatu direla erraten dutenen aurrean, gure balorazioa bestelakoa da: gure egitekoa izan da 30 urtetan lehendabiziko aldiz Nafarroan eskaintza eta eskubide berberak bermatzea ume guztiei. 10 edo 100 matrikulatu, berme hori da guretzat inportantea.

Ekainera bitartean gurasoek matrikula birpentsatu dezaketela diozu. D eredua sustatzeko aprobetxatuko duzue?

Guk eredu eta programa guztien alde egin behar dugu, eskola publikoa aldarrikatuz, eta gogoraraziko dugu matrikula aldatzeko aukera dagoela, nahi izanez gero.

Aurreko gobernuak ezarritako IIP Ingelesez Ikasteko Programa (gaztelaniaz PAI) polemikoari moratoria ezarri diozue, dagoeneko martxan dagoen ikastetxeetan mantenduz, baina IIPren ebaluazioa duzue martxan: zein epetan egingo da ebaluazioa, eta ebaluazio horretan oinarrituko al zarete hezkuntzan zein hizkuntza tratamendu bultzatu erabakitzeke?

Ebaluazioa da erabaki baten hastapea. Jakin behar dugu zer daukagun, zer dagoen ongi eta zer gaizki. Barne-ebaluazioa egingo dugu eta datuak oso kaskarrak dira. Ondorio nagusia da gurasoek nahi dutela ingelesezko programa bat, baina aurreko Hezkuntza Departamentuak oso gaizki antolatuta zuela, akats ugari dituela eta Yolanda Barcinak berak aitortu moduan D eredua geldiarazteko jarri zutela martxan. Orain dagokiguna da hurrengo ikasturterako IIP ez daukaten ikastetxeetan ingelesezko beste programa bat proposatzea.

Eta IIP dagoen ikastetxeetan?

Aurten moratoria daukagu, ikasturte honetan bertan behera uztea ezi-

“D ereduan 10 edo 100 matrikulatu, Nafarroan ume guztiei eskaintza berberak bermatu izana da guretzat inportanteena”

“Gobernuko alderdietan inork ez ditu Lan Eskaintza Publikoaren oinarriak zalantzan jarri, baina asmo politikoak daude, menpekotasunak, eta ulertzen dut, joko politikoa da”

“Oraingoz gai sentitzen naiz jarraitzeko, baina prest nago edozein momentutan alde egiteko”



nezkoa zelako, dena aurrez antolatuta jaso genuen. Orain ebaluazioa aztertu eta erabaki eraikitzaileak hartuko ditugu.

Baina epeak argi dituzue?

Legebiltzarrean erran genuen, gure epea da legegintzaldi osoa. Horrek ez du erran nahi lau urte iraungo duenik prozesuak edo moratoriak hiru urte iraungo dituenik, baizik eta epe horretan moldaketak, proposamenak, zuzenketak... egingo ditugula, eta ahal bada, indar politiko guztiekin hezkuntza arloko ituna adostuko dugula.

Moratoriak iraun bitartean, IIP duten ikastetxeetan programaren akatsak arintzeko neurriak hartuko dituzue?

Bai, jakina, IIP duten ikastetxeek, programa horretan jarraitu arren, berme batzuekin egin dezaten: ikuskaritzaren eta teknikarien laguntza izango dute, irakasleen formakuntzan gehiago inbertitu dugu dagoeneko... Gabeziak antzeman eta konponduko ditugu, hobekuntzak sartu; ezin dugu programa noraezean utzi.

Lan Eskaintza Publikoak (LEP) hautsak harrotu ditu, lehenengo Madrilgo helegitea dela-eta euskarazko lanpostuen eskaintza kopurua nabarmen jaitsi zenutelako, eta gero zerrenda bakarra egin ordez –bi hizkuntza ofizial dituzten Estatuko gainerako erkidegoetan bezala– bi zerrenda planteatu dituzuelako: gaztelaniaz eta euskaraz. Zergatik bi zerrenda Nafarroan?

Hasteko, batzuek erraten dute hizkuntza ofizial bakarra hemen gaztelania dela, eta euskara koofizial hainbat alorretan. Alegia, eztabaida pedagogikoa beharrean eztabaida politikoa dela nagusi. Madrilgo helegiteak behartuta eskaintza murriztu behar izan dugu batetik. Eta zerrendaren gaian, hasiera-hasieratik ikusi genuen sindikatuen iritzia erdibiturik zegoela eta ez zegoela adosteko modurik: Hezkuntzako mahai sektorialean sindikatu abertzaleek dute gehiengoa [zerrenda bakarraren alde], baina Irakasleen Batzordean besteek [zerrenda bakarraren kontra]. Horri gehitu parlamentuan UPN, PP, PSN eta Izquierda-Ezkerrak adierazi zutela lege bat ateratzeko asmoa zerrenda bateratuaren aurka. Pentsatu genuen gatazka

hau konpondu behar genuela, hasteko Gobernuko lau alderdion barruan iritzi bateratua adostuz, eta mehatxua gainean izanik ez zuela merezi jarraitzea, Gobernu hau beti saiatzen delako bi berme izaten: berme juridikoa, inork zure aurka ez egiteko eta erabakitakoa aurrera atera ahal izateko, eta berme ekonomikoa. Berme politikorik ere ez genuen, gehiengoak ateratako kontrako lege baten bidez erabakia bertan behera uzteko arriskua zegoelako.

Eta azpimarratzekoa da oposaketetan bermatu dugula edonork euskarazko eta gaztelaniazko zerrendetan, bietan, parte hartu ahal izatea, azterketa bi egun ezberdinetan jarri dugulako.

Oposizioaren presioak eta Gobernu barruko desadostasunek baldintzatu dute Lan Eskaintza? Izquierda-Ezkerrak desleial jokatu duela eta Gobernua ahuldu duela uste duzu?

Gobernuko lau alderdiok akordio programatikoa eta oinarrizko filosofia bat daukagu, eta akordioen bukaeran agertzen da zein puntutan ez dugun adostasunik. Hortik aurrera, bakoitzak bere

jarrera politikoa du eta bere interesak defendatzen ditu, eta berriz ere eztabaida politikora goaz: inork ez ditu Lan Eskaintza Publikoaren oinarriak zaltzan jarri, baina asmo politikoak dau-de, menpekotasunak –badakigu alderdi politiko batzuek lotura dutela sindikatu jakinekin–, eta hau guztia normalizat hartzen dut eta ulertzen dut, joko politikoa da. Nahiago nuke hainbat gai gatazka politikotik atera, baina bada-ki ezinezkoa dela. Hamarkada hauetan Nafarroan ikusi dugu irabazi dutenek ia-ia nahi dutena egin dutela, baina aro politiko berri batean sartuta gaude, eta bai Gobernuaren politikak eta bai po-litika orokorra aurrera eramateko lau alderdien artean adostu behar dira; po-sitibotzat jotzen dut.

Azalpen, aurreikuspen eta planteamen-du falta leporatu zaio Hezkuntza Sailari. Inprobisazioa eta ziurgabetasuna egon da gestioan?

Departamentutik gauzak beti hobeto egin daitezke, edozein arlotan, baina erabakiak mila bider azaldu arren, nik uste komunitate honetan aurrejuzgu pila bat ditugula. Proposamen teknikoak proposamen politiko bihurtzen da, eta proposamen politiko horrek adierazten du Gobernu baten borondatea eta Go-bernuaren testuingurua eta baldintzak. Uste genuen Eskaintza Publikoa guk planteatu bezala defendatzea posible izango zela, baina ikusi genuen zer no-lako eztabaidak piztu zituen lau alder-dion artean, eta ia konpondu ezinezko bi ardatz genituela: eskaintza publikoa bere horretan mantendu edo ez, eta ze-rrenda bateratua ala ez. Eta gertatuak gertatu, ziurrenik duela urtebete esan izan balitz eskaintza publiko batean ate-rako zirela euskarazko lanpostu gehiago gaztelaniazkoak baino, sinestezina litza-teke. Baina urratsa eman dugu eta ez da zerua erori.

Baina nahikoa izan da urratsa? Izan ere, tirabira politikoen aurrean amore eman duzuela uste du euskalgintzako hainbat eragilek.

Ez da amore ematea, Estatuko aboka-tuak gure zerrendatik 100 lanpostu kentzea erabakigarria izan da. Aurrera jarraitu bagenu eta gero epaileak Esta-tuko abokatuari arrazoia ematen badio-zer? Gure itxaropena da plaza horiek aurrerago ateratzea.



“PSNri eskatu diot Madrilen mugitu dezatela gauza LOMCE desagerrarazteko. Oraingoz zain gaude”

“Ekonomikoki begiratuta, Nafarroan dagoen bigarren enpresa da OPUS, eta hori ere kontuan hartzekoa da. Errespetatu egiten dugu bakoitzaren espazioa”

Galdera beste era batera planteatuta: oposizioak euskararen kontra darabilen “pribilegio” eta “inposizio”-aren diskur-tsoa diskurtso barneratua da Nafarroako gizartearen? Zaila egiten ari zaizue urtee-tako politika linguistikoari irmotasunez aurre egitea?

Zaila da, baina lau alderdion arteko akordioetan adostasuna badago horri aurre egiteko. Euskarabidearen bete-beharra da. Euskara inposatu nahi du-gula? Nafarroako Gobernuan euskaraz-ko gaitasuna duten funtzionarioak ez dira %1era ailegutzen, eta eskerrak da-

tuak guk handitzen ditugun, Hezkuntza Departamentuan %8 direlako. Gobernu akordioaren konpromisoa da herrita-rrei haiek nahi duten hizkuntzan zerbi-tzua eskaini ahal izatea, euren eskubi-dea delako.

Baina mezu hori helarazten zaie herrita-rrei, ala inposaketarena nagusitzen da?

Gauza bat da mezua eta bestea mezu-laria. Bai Gerra Zibilaren ostean eta bai trantsizioan Nafarroan egindako botere banaketaren ondorioa da egungo egoe-ra, 30 urtetan garatua. Eta ondorioa da interes pila bat daudela, politikoak eta ekonomikoak, gauzek zeuden moduan jarrai dezaten. Eta orain arte agintean egon direnen euskarriak, egungo Go-bernuaren kontra daudenak, oihartzun mediatiko izugarria dute oraindik.

Sarriguren eta Noaingo ikastetxeetan hizkuntza ereduaren arabera banaketa eskatu dute D ereduaren aldeko gura-soek, murgiltze eredu bermatzeko eta gaztelaniazko lerroek “jan” ez dezaten. Gaztelaniazko ereduaren, hainbatek sa-latu du hori segregazioa dela. Zein da zuen jarrera?

Erabakia gurea dela adierazi diegu ikas-tetxeei, ez dugulako patata beroa beren gain utzi nahi, baina erabakia hartzeko haien irizpideak jaso nahi ditugula esan diegu, zuzendaritzarena, klaustroarena, eskola kontseiluarena eta gurasoena. Nahi dutena jakin behar dugu, erabakia hartzeko.

Gehiengoak nahi duena egingo duzue orduan?

Gehiengo osoa baldin badago, erraza-go izango da guretzat erabakia hartzea, baina lehenbizi kopuruak eta zergatiak ikusi behar ditugu: ez da gauza bera esa-tea egiten duzuna dela “murgiltzea” edo “segregatzea”.

LOMCE mantendu egin duzue ikasturte honetan, aurreko Gobernuak lotutako dekretuak bertan behera uzteak “seku-lako iskanbila” eragingo zuela esan bai-tzenuen. Ikasturte bukaerako kanpo-az-terketak egingo dituzte ikasleek, 3. eta 6. mailan?

Guk egindako azterketak izango dira, ebaluazio diagnostikoak, eta besteak beste IIP ebaluatzeke ere balioko dute. Guk erabakitako edukiak izango dituzte, eta LOMCE saihesten saiatuko gara.

Espainiako hauteskundeak menpe zintzilik utzi zenuten LOMCE, baina datorren ikasturtea gero eta gertuago dago eta Madrildik oraingoz ez dago berririk. Dekretuak mantenduko dituzue datorren ikasturterako?

Bi aukera ditugu eskuartean: Madrilek LOMCE bertan behera uztea, eta uzten ez badu guk zein jarrera hartuko dugun. Kuriosoa da PSN hasieratik gainean izan dugula, ea noiz egingo diogun aurre LOMCEri, eta nik eskatu diet, eurek aukera daukatela orain Madrilen LOMCE desagerrarazteko, haien eskuetan dagoela eta mesedez mugitu dezatela gauza, LOMCE bertan behera uzteko. Zain gaude.

Eta Madrilen mugitzen ez badira?

Ba erabakiak hartu beharko ditugu. Baina oraingoz zain gaude.

Azpiegitura plana zertan da?

Egoera ekonomikoa da arazoa, Navarra Arena, Los Arcos eta halakoetan gas-tatu duelako dirua aurreko Gobernuak eta epaitegiek irakasleei arrazoia eman ostean 11 milioi euro ordaindu behar ditugulako. 40tik gora eraikin ditugu, egiteko edo eraberritzeko, eta daukagun aurrekontu murriztarekin ahal duguna egingo dugu. Lehenetsuna jarri dugu Sarriguren, Buztintxuri eta Castejongo ikastetxeetan. Bestelako obra txikiagoak ere baditugu martxan...

Aurreko gobernuak murrizketak egin zituen: gela bakoitzeko ikasle ratioak handitu eta irakasleei eskola-orduak gehitu.

Ratioak aurreko balioetara itzuliko dira datorren ikasturtetik aurrera, eta irakasleen eskola-orduak ere, aurrekontuaren arabera baina asmoa da legegintzaldi honetan lehenera itzultzea. Baina hori guztia inbertsio ekonomiko handia da eta txanponak behar dira. Ea erreforma fiskalarekin sos gehiago lortzen dugun.

Sos kontuekin jarraituz, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren (NUP) finantzazioa indartu eta egonkortuko da?

Oposizioak erran du NUPen aurrekontua izoztu dugula, baina gezurra da, aurrekontu nominala aurrekoaren berdina baldin bada ere, beste partida batzuk handitu ditugulako: bekak, formakuntza, doktoretza, graduondoa... Eta joan den ikasturtean kudeaketa ona egiteagatik gastatu ez zituzten 2 milioi euroak ere eskuragarri dituzte, ez ditu Gober-

nuak beretzat hartu bueltan. Bestalde, orain negoziaketak hasiko ditugu hainbat urtetarako planaren ildo nagusiak definitzeko.

Ingelesa azkarrago hedatzen ari da NUPeko ikasgaietan, euskara baino (azken datuen arabera ikasgaien %60 gaztelaniaz eskaintzen dira, %20 euskaraz eta %18 ingelesez). Zein da Gobernuaren hizkuntza politika unibertsitate publikoan?

NUPeK bere hizkuntza politika propioa dauka, horretarako autonomia daukalako. Autonomia hori errespetatzen dugun arren, ez dugu nahi unibertsitatea irla bat izatea hezkuntza sisteman, eta saiatuko gara euskara ere kontuan hartuko duen hizkuntza politika adosten, euskaraz ikasten jarraitu nahi duten ikasleek – Nafarroakoek bakarrik ez, EAetik edota Iparraldetik etor daitezkeenek ere – horretarako aukera izan dezaten. Gizartearen gaurko argazkia bakarrik ez, hizkuntza aldetik nafar gizarteak zein norabide hartuko duen aintzat hartzea komeni da.

OPUSEkin aurreko gobernuak sinatu zuen ituna errespetatuko duzue, sexua-ren arabera bereizketa egiten duten ikastetxeak diruz laguntzea debekatzen duen foru-legea egon arren, LOMCEk baimendu egiten duelako. Zein harreman duzue OPUSEkin?

Harreman normalak dira, ez bakarrik Hezkuntza Departamentutik, Gobernu osotik baizik. Azken finean, ekonomikoki begiratuta Nafarroan dagoen bigarren enpresa dira eta hori ere kontuan hartu behar da. Errespetatu egiten dugu bakoitzaren espazioa.

Ikastetxe kontzertatuekiko diru-laguntzak bere horretan mantenduko dira?

Printzipioz bai. Gizarteari zerbitzu bat eskaintzen diote kontzertatuek, zerbitzu publiko bat baliabide pribatuekin, eta funtzio hori aitortzen diegu, baina lehentasuna publikoak izango du beti. Datorren ikasturterako eskola-mapa berrantolatu behar dugu orain, eta eztabaidatu beharko dugu, diru publikoa jasotzen duten heinean, kontzertatuei zer nolako eskaerak egin diezazkiekegun, adibidez ikasle etorkinen harrera orekatzeko [atzeritar jatorriko ikasleen %83 sare publikoak hartzen ditu] edota irakasle lanpostua lortzeko eta ordezkapenak egiteko irizpide objektiboak bermatzeko.

Ikastolak publikatzeko aukera jarri zenuen mahai gainean, baina ezetz esan zuten.

Elkarrizketa batean galdetu zidaten, “pentsatu duzue ikastolak publikatzea?”, baina guk ez dugu horren inguruan ezer pentsatu eta ikastolek ere ez digute halakorik planteatu, beraz gai hortaz ez dago ezer esaterik. Beste kontzertatuekin bezalaxe, harreman normalak ditugu ikastolekin ere.

Kontzertatuetako irakasleei oposaketa modukoak egitea iradoki izan duzu.

Negoiazioetan egon daitekeen proposamena da, diru publikoa jasotzen duten neurrian, baina besterik gabe. Hori da nik egingo nukeena, irakasleen kontratazioetan gardentasuna frogatzeko, baina horrek ez du esan nahi kontzertatuetako kontratazioak gardenak ez diren.

Nafarroarako Hezkuntza Lege baten premia ere aipatu izan duzu, eta hori lortu bitartean, ahalik eta indar politiko gehienekin adostutako trantsizio lege bat egitea.

Hain juxtu, PSNk horretarako proposamena eraman du parlamentura, domina jarri nahian-edo, Uxue Barkosek aspaldi aldarrikatu zuelako hezkuntza arloko ituna adostea. Hori lortzea ongi legoke, inportantea ez delako arlo politikoa, nafar gizarte osoari heziketa on bat eskaintzea baizik.

Hezkuntza izaten ari da Nafarroan kritiken jomuga nagusia eta Uxue Barkosek ere esku hartu du behin baino gehiagotan. Politikoki kuestionatua ala babestua ikusten duzu zure burua?

Hezkuntza izan dute jomuga, kontseilaria edonor dela ere, eta Uxue Barkos lehendakaria da, hezkuntzan bezala korapilatsuak izan diren beste gaie-tan ere adierazpen publikoak egin ditu. Azken finean, nik adierazten dudana ez da nire iritzia pertsonala, Gobernuaren jarrera da, baina bai, arlo beroa da eta ziurrenik hala izango da. Oraingoz behintzat gai sentitzen naiz jarraitzeko eta Gobernuaren babesa dudana bitartean segituko dut, baina prest nago edozein momentutan alde egiteko; proiektu baten barruan nago eta lehenengo lerroan egon gabe bertze toki asko daude lan egiteko, Nafarroan al-daketa garatzeko. ■

Joseba Eceolaza, Batzarreko eleduna

“DISKRIMINAZIO POSITIBOA KONTUZ EGIN EZEAN, GIZARTEAREN ZATI BAT AURKA JARTZEN DA”

Batzarreko bozeramailea da Joseba Eceolaza (Iruñea, 1979) eta Batzarre, Izquierda-Ezkerra (I-E) koalizioko kide Ezker Batuarekin batera. Nafarroako Gobernua sostengatzen duen lau alderdietako bat da Ezkerra, txikiena, baina erabakigarria, haren botoekin parlamentuko balantzak oposizioaren aldera egin baitezake. Hezkuntzaren eta euskararen eremu gori-goriak jorratu ditugu elkarrizketan.



Xabier Letona

@xletona

ARGAZKIA: JOSU SANTESTEBAN

Gobernuak dagoeneko ekimen berritzaile ugari egin ditu alor guztietan: zerga erreforma, osasuneko itxaron zerrendak, Opuseko hitzarmen bat kendu... Baina euskararen inguruko gaietan dira arazorik handienak, bai gizarteari begira bai gobernua sostengatzen dutenen artean. Zergatik?

Nafarroan frontismoaren kultura handia dago eta bagenekien hori gertatu behar zela, identitatearekin, sinboloeekin edo hizkuntzekin. Guk uste dugu frontismo hori apurtu egin behar dugula eta horregatik diogu euskarari egin diezaiokegun mesederik handiena zaraterekin amaitzea dela, eztabaida zarata-tsu horietan euskarak eta euskaldunok galtzen dugu eta.

Euskaldun askoren pertzepzioa, aldiz, alderantzizkoa da: zaratarik ateratzen ez badugu gure eskubideak ez direla aintzat hartzen uste dugu. Berdin esango zenieke LGBTei, edo mugimendu feministari...?

Ez, ez dut esan nahi gure aldarrikapenak ez direla kalera atera behar, baizik parlamentuan ematen den krispazioa txarra dela. Krispazio horretan eskuinak badu bere errua, baina euskaldunok ere badugu gurea; adibidez, azkenotan izan ditugun auzietan ez dugu jakin izan ongi azaltzen zer egin behar zen. Esaterako, Jose Luis Mendozak Lan Eskaintza Publikoa (LEP) kudeatu duen era ez da ona izan eta horrek arazoak ekarri ditu, bai gobernua sostengatzen dugun

laukotean eta bai hortik kanpo. Diskriminazio positiboa egiten denean kontu handiz egin behar da, gizarteari begiratu, bestela gizartearen zati bat kontra agertuko da.

Goazen aztertzeraz LE Parekin gertatutakoa. 425 plazako LE Pa atera zen azaroan. 2016rako 320 (228 euskaraz eta 92 gaztelaniaz). Zuek aurka, ez zela orekatua. Non egin zuen bekakua Hezkuntza Sailak?

Ezin da halakorik egin sindikatuak eta sostengatzen zaituzten alderdiei inongo informaziorik eman gabe. Prentsaren bidez jakin genuen zer egin behar zen. Haur eta Lehen Hezkuntzarako ateratako 120 plaza euskaraz ziren, bakarra ere ez erdaraz. Hori ez da zuzena





“Guk ere badugu gure ikuspegi teknikoa, Batzarreko jende asko da irakasle eta esaten dute ez legokeela arazorik gaztelaniako 60 plaza ateratzeko inongo soberakinik sortu gabe”

“Euskara sustatu behar dugu, baina hiru ideiatan oinarrituta: askatasuna, inposaketarik ez eta errealitate soziolinguistikoa kontuan hartuta”

Nafarroaren egoera soziolinguistikoan. Txosten teknikoa ez da fede dogma bat. I-Eren zeregina zubi lana eta kontsentsua bilatzea da. Euskara eta euskaldunen eskubide eta zabalkundeari begiratu behar diogu, baina garrantzitsua da nafar bakarrak ere ez hartzea eraso gisa, eta horretarako kudeaketa inteligentea behar da.

Hezkuntza Sailaren argudioetan esaten zen IIPren (Ingelesez Ikasteko Programa) zabalkundearen ondorioz, irakasle elebakarrak soberan direla. Beraz, zertarako atera plaza gehiago? Horrez gain, legeak ez du baimentzen ingelesezko plazak ateratzea.

Urtero 400 jubilazio ematen dira irakas-

kuntzako sare publikoan eta, beraz, hezkuntza munduak oso erraz barneratzen ahal ditu guk eskatzen ditugun gaztelaniako 60 plaza horiek [Haur eta Lehen Hezkuntzako 120 horietatik]. Horrez gain, gaur egun irakasleen artean badira ingelesa ematen ari ez direnak, baina ingeleseko C1 titulua dutenak. Horiek ere birziklatu daitezke.

Agian egongo dira irakasleak C1arekin, baina ez dute IIPn klaserik eman nahi izan, B2ko jendea sartu baitute programara.

Guk ere badugu gure ikuspegi teknikoa, Batzarreko jende asko da irakasle eta esaten dute ez legokeela arazorik gaztelaniako 60 plaza ateratzeko inongo

soberakinik sortu gabe. Ahal Dugu ere iritzi horretakoa da. Azkenean, Hezkuntza Sailak Legebiltzarrean 33 boto aurka zituen [50etik]. Guk Yolanda Barcinari esaten genion ezin dela Legebiltzarren aurka gobernatu, eta oraingo Gobernari ere gauza bera eskatu behar diogu.

Euskara sustatu behar dugu, baina hiru ideiatan oinarrituta: askatasuna, inposaketarik ez eta errealitate soziolinguistikoa kontuan hartuta. Ezin da ahaztu, gaur egun Nafarroa osoko sare publikoan D ereduan ikastea posible dela I-Ek lege aldaketa hori proposatu zuelako. Eta gogoratu behar da ezker abertzalea hainbatetan agertu dela halako aldaketen aurka.

LEParen inguruan dagoen bigarren auzi garrantzitsua zerrendena da. Horren inguruan, ez duzue argi utzi zuen posizioa, behintzat publikoki.

Aitortu behar dut oso konplexua egiten zaidala gai honetan iritzi borobil bat izatea, beraz ñabardurak ezinbestekoak dira. LEparekin sortu den istilu handia kontuan hartuta eta bake sozialaren alde, ados gaude gobernuak 2016rako bi zerrenda mantentzeko egin duen hautuarekin. Argudioetan sartuta, batzuek zera diote: "Eta zergatik atera behar dira zerrendak hizkuntzei begira eta ez espezialitatei begira eta, beraz, 16 zerrenda egon daitezela? Gobernuak bi zerrendak mantendu ditu eta oraingo formulak euskaldunen eskubideak bermatzen ditu, euskarazko eta gaztelaniazko azterketara aurkezteko aukera izango duelako.

Zergatik egin behar ditu euskaldunak bi azterketa? Kasu horretan, gainera, euskaldunek aukera gehiago izango lukete.

Askotan aipatzen da Katalunian, Mallorcan eta Valentzian zerrenda bakarria dagoela, baina gure errealitate soziolinguistikoa ez da hori. Valentzian jende gehienak daki valentziarra, eta hemen euskara ez.

Baina orain arte euskalduna diskriminatu da. Berak hautatu behar zuen, adibidez, plazen %30-40ra (euskarazkoak) aurkezte, bere gaitasunaren arabera %100era aurkez zitekeenean.

Interesgarria iruditzen zait Ahal Duguk korapiloa askatzeko egin duen proposamena: aurten egin dadila bi azterketekin eta, aldi berean, Nafarroako Eskola Kontseiluan zabal dadila gaiari buruzko eztabaida zabala inplikatu guztiekin, erabaki dadin 2017rako nola egin behar den. Horrela egiten bada, saihestuko dugu LEparekin gertatu dena.

Eta eztabaida horretan, zuen posizioa zein izango da?

Une honetan ez dakit, zehaztasun tekniko gehiegi daude eta. Hala ere, gure errealitate soziolinguistikoa kontuan hartuko duen eredu baliagarria bilatu behar dugu.

Beraz, eremu euskalduneko herritarrek eta ez euskaldunekoek hizkuntza eskubide desberdinak izan behar dituzte?

Gure ekimenez, orain eremu ez euskaldunetan nahi duenak euskaraz ikasi ahal izango du D ereduan sare publikoan.

Hori da eskubideak bermatzea, eta ez Tuteran edo Ribaforadan euskara teknikari bat jarri nahi izatea, horretarako eskakizunik ez dagoenean.

Orduan, zure ustez, zonifikazioa egokia da?

Gu zonifikazioaren aurkakoak gara, baina esaten dugu ezin zaiola gauza bera eskatu Baztango Udalari eta Ribaforadakoari.

"Askotan aipatzen da Katalunia, Mallorcan eta Valentzian zerrenda bakarria dagoela, baina gure errealitate soziolinguistikoa ez da hori"

Ofizialtasunaren eskaerarekin, nafar guztiek hizkuntza eskubide berberak izatea eskatzen da. Gero, tokian tokiko errealitate soziolinguistikokoaren arabera, toki bakoitzak bere garapena izango du.

Orain arte euskararen munduaren edo abertzaletasunaren zati baten aldarrikapena ez da hori izan; eta mundu horietatik ez da ondo interpretatu eta errespikatatu nafarron nortasuna eta nafarron errealitate soziolinguistikoa. Sekulako hanka sarteak egin dira. Sakanako herri batean langabetuen %80a erdalduna da, baina udal horrek ateratzen dituen lanpostu guztietan euskara eskatzen du, baita garbiketa lanak egiteko ere. Beste herri batean, udal bilkurarako ematen diren gai ordenak euskara hutsean dira. Beste adibide bat: herritarrei harrera egiteko Iruñerriko udal batek bulego bat ireki du eta horretarako lau lanpostu sortu ditu eta lauetan euskara baldintza gisa eskatu du. Horiek ez dira nire ereduak, diskriminazio positibo horiek ez dira egokienak euskara Nafarroan laguntzeko.

Eskubideetan minorizatuak diren kolektibo askorekin jokatzeko da diskriminazio positiboz, edo desorekak direlako zerbaite orekatu nahi denean...

Ulertzen dut zor historikoa dugula euskararekin, baina tentuz ez badugu egiten gizartearen zati handi batek ez du euskara guztion altxor gisa hartuko. Pe-

dagogia handia behar da. Aldaketak mezezi du frontismoarekin amaitzen badu. Ez da amaitu behar aldarrikapenarekin, baina bai frontismoaren zaratarekin.

Pedagogia aipatzen duzu, gizarteari ongi saltzea. Iruñeko haur eskolen kasuan pedagogiaz egin da?

Orain arte, 17tik bi ziren bakarrik euskaraz eta gainera Txantrean biak. Beraz, gu ados gaude 17 horietatik 4 euskaraz izan daitezen eta hiriko toki desberdinetan hedatuak. Formetan, berriz ere ez da asmatu.

Sarriguren eta Noaineko eskola publikoetara ere zabaldu da zalaparta. D ereduak aparte egotea eskatu dute, hala murgiltze ereduan sakontzen dutelako. Hemen ere zuek kontra agertu zarete.

Tokian tokiko erabakiak hartu behar dira. Sarrigurenen ikastetxe berri bat egin behar bada, egin dadila. Noaingo kontua desberdina da. Oro har, eredu arteko elkar bizitza bermatu egin behar da eta hori indartu behar dugu hizkuntza murgilketarekin. Euskarazko ereduak izan dezakete euren agenda propioa -San Blas, Olentzero...- eta batzuetan baita bere patio ordutegi desberdina ere. Hala ere, ona da patioan eta erdaldunek entzun dezatela euskara, ikus dezaten hori guztiz normala dela.

Orain proposatzen da D eredu banatzea ikastetxe horietan eta segregazio akusazioak egiten dira, baina Nafarroako zentro asko dira D ereduak bakarrik, ez da oraingo kontua, eta ez da ezer gertatu.

Bai, hori UPNren antzezlan da. Adibide bat jarriko dizut, ni Iruñeko Alde Zaharrean bizi naiz eta bertako Frantzisko Deuna eskolan bi ereduak daude elkarbizitzaren eta plazara ateratzen direnean denak nahasten dira. Eredu hori gustatzen zait.

Bai, baina klaustroak funtzionatu behar du gaztelaniaz, Eskola Kontseiluan berdin eta, oro har, D eredu kopurutan nagusi izan arren, erdararen presentzia nagusi da klaseetatik kanpo. Euskaldunak irlatxo bat dira erdararen itsasoan, horregatik eskatzen da hizkuntza irlatxo horiek indartzea, gero gizarteak badituelako toki ugari elkarbizitzarako.

Bai, baina horrek hainbat tokitan erdaldunen ghetizazioa dakar, Berriozarren, adibidez, egon daiteke arrisku hori. Frantzisko Deunakoa da nire ereduak. ■



Argazkiko zenbakizko kontrol makina
Fagorrena da eta euskaraz dago.

Fermin Lazkano

“ASKO EGIN DUTEN ENPRESAK HASIAK DIRA BEREN SABAIETARA IRISTEN”

2015eko udazkenean, bere lantokian, Elgoibarko Makina Erremintako Institutuan, entzun genuen jardunaldietan. Euskalduntzean aitzindari diren enpresak zituen ahotan, eta tesi bat: langileen eta tresnen arteko hizkuntza-harreman konbinazioak kalkulatu behar dira, jakiteko zenbat euskara egin dezaketen. Horrek lagunduko du lorpenak fintzen. Fermin Lazkano IMHko Berrikuntzarako Tkgune Fabrikazio sareko zuzendaria da.



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Enpresa munduaren euskalduntzea, oraindik moteltzen ez dela hasi baina hasiko dela diozu. Zergatik diozu hori, duela ez hainbeste jorratzen hasitako eremua da eta?

Optimismo antzuetan eta ezkorkeria maltzurretan ez erortzeko jakin behar dugu non gauden. Prozesu guztiek daukate euren erritmoa, lehenengo uneetan oso bizkor ibili eta gero moteldu egin daiteke, edo prozesu zailagoak direnean, hasieran, motelago ibil daiteke eta gero klabe batzuk aurkitutakoan bizkortu egiten da prozesua.

Oraindik ere *in crescendo* goaz, baina

iritsiko da puntu bat non zailagoa izango den lorpenak erritmo berean lortzea. Gauza bat gertatzen da. Hasieran, oso garrantzitsua da giroa, gogoia, asmoa, pizgarria, zuzendaritzaren mezua, eta horrek denak eramaten ditu. Leitmotiva ipintzen duzu, denok ukitzen gaitu, eta indar asko biltzen dira une berean horren alde. Norbanakoen erabakien multzoa da hori.

Baina gero iristen da eremu pertsonalaren momentua, norberak hartu behar du erabakia, hurrengo saltoa pertsona jakinek eman behar dute.

Adibide baten bidez azal dezakezu?

Gure esperientzia, hemen. Hasieran kanpainak ziren: "Goazen errotulazioa euskaraz ipintzera!, Goazen tresnak euskaratzera!, inkestak egingo ditugu...", eta ondo zihoan, [erabileraren] kurba gorantz zihoan. Gaur egun trabatuta gaude. Dozena bat pertsonak edo salto egiten dute edo ez dago beste zereginik. Erantzukizuna lokalizatuta dago eta pertsonengan dago, izan euskaldun ala erdaldun, euskaldun guztiek ere ez baitute euskaraz egiten.

Kuadrilla baten nahiak eta ahalmenak elkartzen direnean biderkatu egiten da indarra eta emaitza. Eman dezagun hamar lagun direla, zortzi euskaldun, baina gaztelaniaz egiten dute. Erabakitzen dute, bi horiek ez daudenean, euskaraz jardutea. Zortziek ez dute beteko baina bospaseik igoi bai. Une horretatik aurrera, bat-batean, sekulako saltoa eman dute. Kontua da indar hori noraino iristen den. Sei horietatik batzuk nekutzen hasiko dira, "ahozkoan oso ondo moldatzen gara baina idatzizkoan ez...", trabak agertzen hasten dira, eta hasieran zeuden indarren sabaira ailegatzen gara.

Enpresak sabaia jotzen ari direla esan nahi duzu?

Sabai bat dagoela konturatzen gara eta zergatik dagoen analizatuko dugu. Demagun idatzizkoan trebezia nahikoa ez daukagulako dela, "hi, ikastaro bat egingo diagu alfabetatzeko, astean lau orduz euskaltegian, enpresak ordainduta". Horrek beste bultzakada bat ematen du, eta hurrengo saltoa hasten da, baina horrek ere bere sabaia du. Sabaiak hautsiz goaz, eta bakoitzak du hausteko bere kabea.

Horregatik diot, 90eko hamarkadan hasi ginen enpresa mundua euskalduntzen. Askok egin duten enpresak hasiak dira beren sabaietara iristen. 2003an



"Uste badugu, uste izan dugun bezala, kaleetako seinaleak euskaraz ipintzea garrantzitsua dela, ez ote da gutxienez beste hainbeste izango lantokian lanari buruzko hitzak euskaraz edukitzea?"

egin genuen lehenengo euskara plana guk eta ikusi dugu zein den gure sabaitoa. Berdintsu ari da gertatzen beste hainbat tokitan.

Sabaiak sabai, lorpenak estatistikoki neurtu behar direla diozu eta halako gutxi egiten dela enpresen euskalduntzean.

Antzeko enpresetan, bata %70 euskalduntzera iritsi da eta bestea %40an gertatu da. Eragileen (pertsonak eta tresnak) arteko konbinazioak aztertzen badituzu, konturatuko zara emaitza hobeak ezin

zirela lortu. Arrakastatsuagoa izan daiteke %40ra iritsi den enpresa %80ra iritsi dena baino, zeren aurrez badakizu zein den bakoitzaren potentzialitatea. Hori da nire tesiaren muina.

Zehaztu ezazu gehiago zure tesia, alegia, azal diezaguzu norbakoak-tresna-lankidea-bezeroa formula.

Lehenik, langilea dago. Horrek erabaki behar du euskaraz ala gaztelaniaz jardungo duen. Bigarrenik, hark lankideekin duen harremana dago. Hirugarrenik, kanpokoekin, hau da, bezeroekin duen harremana. Laugarrenik, langilearen eta tresnen [ordenadore, kontrol numeriko...] arteko harremana. Tresnak, gero eta gehiago, langileen bitartekariak dira.

Tresnak zein hizkuntzatan hitz egiten duen zenbateraino eragiten du langilearen hizkuntza erabileran?

Lehenengo egunean, tailerrean, zenbakizko kontrol makina batera joan nintzen eta konturatu nintzen gaztelaniaz zegoela. Fagorrena da eta euskarazko bertsioa badu. Azpitikoko ikasle batzuk zeuden han eta esan nien ARGIAkoak zentzuzko argazkia ateratzera eta euskarazkoa jartzera nindoala. "Euskaraz dago ala?". Ez zekiten. Euskarazko bertsioa erabili izan balute programazioa hizkera euskaraz erabiliko lukete, baina gaztelaniaz egonda gaztelaniaz egiteko joera dute. Horrek izugarri baldintzatzen du.

Zergatik esaten duzu izugarri baldintzatzen duela?

Kalkulu-orri batean idazten baldin badut eta aginduak euskaraz baldin badaude, ezagutzen dut "errenkada", "batez bestea", "bariantza"... hitz mordo bat. Makinari esker hitz horiek erabiltzen ohitu egiten zara eta gero hizketaldi tekniko bat oso erraz abiatzen duzu. Baina "archivo-copiar-pegar..." badauzkazu, horretaz ari zarenean segituan joko duzu gaztelaniara.

Industrian beste hainbeste?

Hiztegi teknikoak pisu handia izan dezake. Danobatek makina erremintako bere hiztegi teknikoaren bizpahiru bertsio

eginak ditu. Tafallako Fagor Ederlanek langile guztiei banatu die bere hiztegi teknikoak. Horrek errazten du hizketaldia euskaraz. Zertaz hitz egiten da tailerrean, kuadrillan edo familian hitz egiten den gauzez? Ez, laneko gauzez ari zara, gauza teknikoaz: ximurdura, artezketak...

Erdibidean doanak, euskaldun berriak, baina euskaraz aritzeko nahikoa tresna duenak, kezkatzen nau. Aitzakia erraza da hiztegi teknikoak menperatzen ez duzulako gaztelaniara jotzea. Hiztegia edukita, aitzakia eta arrazoiak (ez baita aitzakia bakarrik) ezabatzen dituzu. Nahi duena ohitu egiten da, eta bat-batean konturatzen da tailerrean gai tekniko batzuek euskaraz ari dela. Gero ez du bada egingo kalean ere euskaraz, askoz errazagoa den inguru batean! Eragina izugarria da. Uste badugu, uste izan dugun bezala, kaleetako seinaleak euskaraz ipintzea garrantzitsua dela, ez ote da gutxienez beste hainbeste izango lantokian lanari buruzko hitzak euskaraz edukitzea?

Horrek guztiak garrantzia du, pertsonaren erabakia aldarazten duelako.

Hainbesteraino?

Niretzat bai. Euskaraz ala gaztelaniaz jardun, klik bat da. Baliteke bi-hiru urte pasatzea euskaraz egitea erabaki duzunetik hasten zaren arte, baina erabakia instantaneo izaten da. Erabaki horiek oso potenteak dira, horretara eramaten duen guztiak balio du, giroak, hizkuntza paisaiak, lagunak zer esaten dion, entzuten den musikak, lankide bat etortzea eta esatea, "zu gai zara *word* euskaraz erabiltzeko, ipiniko dizut?". Agian ordurako euskaraz hasteko erabakia hartua du.

Zuk diozu kontu zehatzak atera behar direla, lankideen arteko harremanen maiztasunak, lankideen eta tresnen artekoak, eta tresnak lankideen bitartekari direla.

Adibide bat jarriko dut. Enpresa batek lanpostu baterako deialdia egin du eta azterketan aurrena geratu dena fenomeno bat da, baina ez du euskara menperatzen, motel dabil. Zer egin? Pentsa dezagun ardura postu baterako kontratatu nahi dutela. Zenbatu dezagun bere taldeko lankide kopurua, eta jaikingo dugu zenbat erlazio edukiko dituen egunero lankideekin. Eman dezagun zuzendaritzan dagoela, kalkulatu zenbat bilera egin beharko lituzkeen. Langile berria kontratatu aurretik erabilera hainbestekoa da, eta lanean hasten bada, egindako kalkuluen arabera jaitziera halakoa. Prest dago enpresa jaitziera hori izateko?

Horixe da zure aldarrikapena.

Euskara planek horrantz izan behar dute eboluzioa, kalkulu estatistikoak integratzea behar dute. Adibide bat ematearren, euskaraz dakien langile eta euskaraz daukazu tresneria kopuruaren arabera gerta liteke lantoki batean euskararen erabileraren goia %30 izatea. Hor dago Txillardegiren analisi matematikoa [Elebidun Gizarteaz Azterketa Matematikoa]: euskaldunak hainbeste, erdaldunak horrenbeste, haien arteko konbinazioak egin eta gehienez hainbeste egingo dute euskaraz. Hori bera aplikatzea euskara planei.

Sekulako garrantzia ematen diogu motibazioari eta abarri, eta eman behar zaio, ez nago batere kontra, baina ahaztu egiten ditugu alderdi kuantitatibo hutsak direnak, estatistikoak. Hori da nire aldarrikapena. Potentzia galtzen

ari gara euskara planetan. Hori edukita, agian, hainbat sabai gainditu ahal izango genituzke.

Eusko Jaurilaritza tresneria euskaraz eskaintzen apal ari dela diozu. Egindakoa gutxi eta dagoenaren berri enpresengana ez da heltzen. Zer eskatzen diozu administrazioari?

Goazen esatera egiten diren gauzak. Ofimatikako programak, pluginak eta abar www.euskadi.net-en argitaratzen dira. Ondo dago, egiten dira gauzak. Lehen baino askoz gehiago.

Fagorrek SAP ERP erabiltzen du. Multinazional alemanak enpresen kudeaketa orokorrerako sortutako softwarea da. Munduan gehien erabiltzen dena da. Enpresako ordenadore guztietan egoten da, tailerrean, bulegoetan, Berlinen saltzen ari den haren sakelakoan, zuzendaritzako erabakiak hartzeko... Badira modulu batzuk euskaratuta, baina publikoki eskuratzen oso zailak dira.

Fagorrek badu makinak maneiatzeko zenbakizko kontrol programa euskaraz. Fagorrekoek beraiek esan ohi dute hamaika tokitan euskaraz ari direla hizketan eta trastea ez dutela euskaraz ipintzen.

Bigarren akatsa eguneraketak dira. Microsoft Office, eta abar. Konprenitzen dut lan izugarria dagoela eta bizkor egin behar direla, konprenitzen dut garestia dela. Konprenitzen dut, baina ez dut onartzen. Librezele moduko elkarteak ari dira borondatez euskaratzen. Demontre, horiek egin behar dute? Eusko Jaurilaritzak lideratu dezala! Goazen denon artean erabakitzen nondik abiatuko garen, eta denak horretara jarriko gara. Bitartean eskerrak Librezele moduko elkarteak dauden. ■



www.bilbaoeuskaraz.eus



www.ikusietaikasi.net



www.harrapazank.com

143 agai



Jakoba Errekondo
mandio@zerain.eus

Arbolari bezalaxe zuhaitzari agaia jarri eta adarrei goian eustea kultura da. Jakintza handia, kultura. Bestela adarrak hautsita eta desitxuratuta, zarrapastroso litzatekeen landare tzarrari lagundu, eta era berean etorkizun berri bat eman. Kultura: landu. Hazten lagundu. Zenbaitetan baita zeharo bestelakoa izango den landare bat izateraino ere. Bere bueraz beste landare bat egiten dugu.

Adibide polita bezain ikusgarria dute Formenteran. Ikusgarria bai, benetan, bisita bat merezi duten horietakoa. Makina bat gauza kaxkarrago ezagutzeko asmoz mugitzen gara urrutirago... "Na Blanca d'en Mestre" du izena, eta pikondo bat da, *Ficus carica*. Es Pla d'en Mestren bizi da; ehunen bat urte ditu, eta 356 metro koadroko itzala egiten du.

Pikondoa indarrean etortzen den arbola da; behin itsatsita, azkar hazten den horietakoa. Baina egur makala du, ahula, maskala. Azkar hazten delako ala azkarrago hazi nahi duelako? Zein ote

"Na Blanca d'en Mestre", Europako pikondorik handiena omen dena.



ETHMATEO

egur gogorra ez egitearen arrazoia? Batetik, egur sendo zeken iraunkorra ez egiteak azkar hazteko aukera ematen du. Energia gutxiago behar du. Azkarrago haziko da. Bestetik, egur biguina sortzeak adarrak pixka bat luzatu orduko makurtu eta lurreratzea dakar. Lurra ukitzen duenean sustraiak emango ditu, eta bertan, adar hori dela medio amari lotutako pikondo berria haziko da. Horri berari ere adarrak hazi, makurtu, errotu, itsatsi eta landare berriak etorri; bukatzen ez den katea. Pikondoari bakera emanez gero, inguruko jira-buelta osoa harrapatuko luke adarretik sortu-

tako arbola berriz; gero eta zabalago, heda eta heda, pikondo erraldoi bat eta bakarra litzatekeena sortuz.

Horixe da "Na Blanca d'en Mestre". Hazi ahala makurtzera jotzen duten adarrei, ordea, makulua, agaia jarri die. Eta agaian sendo oinarrituta adarrak aurrera; eta agai berria eta aurrera. Pikondoak 356 metro koadro azpian hartu arte, ahuntz-talde eta artalde galanten abaro. Arkitektoen ikasgai da. Eraikuntza dela diote. Nik kultura dela diot, 143 agaik eusten duten monumentua. 1992an izen hori eman zioten; Europako pikondo handiena omen. ■

IRAKURLEAK GALDEZKA

Kaixo Jakoba. Orain dela gutxi *Bizi Baratzea* liburua oparitu didate eta egia esan oso gustoko izan dugu. Etxean ikusi diogun gauza txar bakarra bertako euskera da. Aita ibiltzen da gurean ortuan gehien, eta 70 urteko gizon bizkaitar batentzat, nahiz eta euskeraz hitz egin betidanik, ulertzeko oso zaila da. Bestalde, liburuan ez dut ikusi boniatoari buruzko ezer. Landatu daiteke Euskal Herrian?

Larraitx Aurrekoetxea (Mañaria)

Kaixo Larraitx. Mila esker liburuaren jarraitzaile izateagatik. Euskaraz idazteak arazo hori du: euskalkiak, azpieuskalkiak... Hainbeste izen eta hitz desberdin ditugu gauzei deitzeko... Arazo handia da zein aukeratu erabakitzea.

Boniatoa dela-eta, ez dut ezagutzen inor hemen egiten duenik. Hala ere ziur ondo etorriko dela. Eguzkia eta

beroa maite ditu. Janari asko behar du: sats zaharrez ongarritu lurra jarri aurretik. Arazo bakarra ikusten diot: ongi, oso ongi drainatzen den lurra eskatzen du. Igokaria denez, arbatzea komeniko dela iruditzen zait, baina ez naiz ziur, agian lur gainean bertan ez da ustelduko... Apirilean ereingo nuke, patata bezala, tuberkulu zatia, hamar zentimetro sakon eta 50eko tartearrekin, gutxienez.

Tuberkulua bera kontserbatzeko berezi samarra da. Onena ahal den azkarren jatea da.



Boniatoak (Ipomoea batatas).



Badira elikagai agroekologikoak erreataurazio kolektiboan txertatzeko hainbat proiektu martxan, hala nola Ekolapiko eskolako jangeletarako proiektua edota Ortutik Ahora katering agroekologikoa (argazkian).

BIOLUR ELKARTEAREN DIAGNOSTIKOA

Bertako elikagai ekologikoei sukaldetako ateak irekitzen



Garazi Zabaleta
@tirikitran

Azken urteetan hazkunde nabarmena izaten ari da nekazaritza agroekologikoaren sektorea. Hein handi batean elkarre eta kontsumo taldeek egindako formazio lanari esker, kontsumitzaile "arduratsuak" ikasten ari dira bertako ekoizle txikien produktuak baloratzen eta ekologikoari garrantzia ematen. Baina, betiko azoka edota kontsumo taldeetako saskietatik harago, zein aukera gehiago dituzte ekoizleek beren produktuak zuzenean saltzeko? Galdera horri erantzunak emateko, azterketa egin du Biolur Gipuzkoako nekazaritza ekologikoaren aldeko elkarteak. Otsailaren 25ean egin zuten txostenaren aurkezpenean Donostiako Km0 jatetxean, ekoizleekin emaitzak eta aurrera begirako alternatibak partekatzeko.

Donostiako hainbat jatetxek sareak egingo du inguruko baserriarekin

Gipuzkoan badira jada hainbat ekoizle txiki jatetxeei beren produktuak saltzen dizkietenak, baina orokorrean gutxi baliatutako aterabidea da. Euskal Herritik kanpo, ordea, badira nekazari txikiak eta erreataurazio kolektiboko enpresen arteko sareak martxan, ereduak har daitezkeenak. Hemengo sare hori ehuntzen hasteko, ENEEKek (Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua) sustatuko duen proiektu pilotu baten berri eman zuten Biolurre-

ko kideek, diagnostikoaren emaitzat harturik daitekeena: Donostiako hainbat jatetxek inguruko baserriarekin sare txiki bat antolatu eta salmenta bide hori sustatzea izanen du helburu proiektuak. "Desfasea dago jatetxeen eskari eta eskaintzaren artean. Hau arazo bezala ikusi beharrenean, ordea, aukera bezala ikusi behar dugu: egun dauden ekoizleentzat aterabide modu bat izan daiteke, baita etorkizunean sektorean sar daitezkeen ekoizle berrientzat ere", azpimarratu zuen Marc Badal Biolurreko kideak.

Tokioa bai, ekologikoa ere bai

Orokorrean begi onez hartu zuten proiektua aurkezpenera agertutako ekoizleek. Hala ere, kezka bat nabarmen agertu zen eztabaidan: tokiko produktuen kontsumoa eta ekoizle txikiak sustatzea gizartearen geroz eta indartuago dagoen arren, elikagaiak ekologikoak izatearen garrantzia zailtasun jartzen da askotan. Are gehiago, sarritan "gutxietsia" ere izaten omen da. Kontsumo ereduaren eta elikaduraren inguruko formazio lanetan segitzeko beharra agerian gelditu zen, beraz. Bien bitartean, jarrai dezatela tokiko barazkiek beren bide laburra egiten: baratzeetik azokara, kontsumo taldeko saskira, eskolako jangelara nahiz gure jatetxeetako sukaldetara! ■

BIZI BARATZEA

**Gure kultura
iraultzen ari den liburua**

Bloga: www.argia.eus/bizi-baratzea

@bizibaratzea



Eskaerak:

943 371 545 · www.argia.eus/denda

Salneurria: 23 €
Harpideentzat: 19,50 €

AURKEZPEN HITZALDIAK

Martxoak 16: Alegia

Institutuan, 10:40an.

Martxoak 17: Segura

Kultur Etxean, 19:00etan.
Ehungarren aurkezpenean!

Martxoak 19: Bedarona (Ea)

Jakoba Errekondo bertatik arituko da Euskadi Irratiko Landaberri saioan; ondoren solasaldia. 10:30ean, lekua zehazteke.

Martxoak 22: Goiatz

Dendale ostatuan, 19:00etan.

Apirilak 8: Ezkio-Itsaso

Lekua eta ordua zehazteke.

Apirilak 13: Barakaldo

San Bizenteko kultur etxean, 19:00etan.

Apirilak 14: Murgia

Lekua eta ordua zehazteke.

ANTOLATU ZURE HERRIAN

sustapena@argia.com

943 371 545

ALOKAIRUZKO NEGARTIAK



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Baiona, 1298. Udal ordenantzen bidez, oihiak, negarrak eta atsekabe adierazpenak debekatu zituzten hiletetan. Oñatiko 1479ko araudi batek jasotzen duenez, lantuez gain “aurpegiak zauritzea” ere galarazita zegoen. Erriberriko agintariek, aldiz, ilea ez erauzteko eta arropak ez puskatzeko eskatzen zuten.

1486ko Lekeitioko ordenantzen arabera, senitarteko zuzenak soilik zeukaten negar eta auhen egiteko baimena, baina haiek ere baldintza bat bete behar zuten: ileetatik ez tiratzea. Arauak ez zuen eragin handirik izan, urte batzuk geroago Udalak gortera eta Calahorrako gotzaintzara jo baitzuen laguntza eske. Hala, 1519an lekeitiarrek Errege Agindu eta Calahorrako ikuskatzailearen mandatu bana jaso zuten, hileta elizkizunetako gehiegikeriak galarazten zituztenak.

Bizkaiko Foruetan arau berri bat erantsi zuten 1526an, gehiegizko lantutak debekatzeko. Baina horrek ere ez zuen jarduna eten, Gordexolan 1548an berriro ere erostariak debekatzeko ahalagindu izanak frogatzen duenez.

Erostari esaten zitzaizen Bizkaian eta adigile Gipuzkoan, hor ere “negarti profesionalak” bai baitzeuden. 1581ean Zestoan bildutako Gipuzkoako Batzar Nagusietan, Azkoitiko prokuradoreei errieta egin zieten, herri horretan adigileen ikuskizunek indarrean jarraitzen zutelako.

‘Erostariak’ eskultura, Asturiasen. Urruneko garai eta lurraldeetako kontuak iruditu arren, erostarien jarduna oso zabaldua egon da gurean berriki arte.



Eliza katolikoa ere ahalegindu zen ohitura “paganoa” desagerrarazten. 1541ean Iruñeko gotzaina Tolosara joan zen bisitan eta, bide batez, emakumeei debekatu zien “negar, oihi eta txalo egitea (...) defuntuen aldeko elizkizunetan”. 1590ean Iruñeko sinodoak hau erabaki zuen: “Ez da kontuan hartzen bizitza honetatik irtetea betiereko bizitzan sartzen garela, oihuekin elizetako bakea hausten dute; hemendik aurrera defuntuekiko sentimenduak neurritz adieraztea agintzen dugu. Eta gehiegikeriarik balego, erruduna elizatik bota dezatela”.

XVI. mendearen amaieran Andres Alonsotegik zioen erostarien zerbitzuak geroz eta gutxiago erabiltzen zirela. Eta 1625ean Lope de Isastik idatzi zuen

neurritz kanpoko lantutak bazirela, baina soilik senideenak, ez ordainpeko auhendarienak. Hala ere, Julio Caro Barojaren arabera, XIX. mende bukaeran Bizkaian, Elantxoben esaterako, erostari ordainduak bazeuden oraindik, eta Joxemiel Barandiaranek 1923ko urtekarian jaso zuenez, urte hartan Gernikan eta Kortezubin gutxi batzuk geratzen ziren. Beraz, ohitura oso zabaldua izan zen gurean duela gutxi arte.

Isastik azalpen soilak eman zion horri: “Probintzia hauetan negar egiteko ohitura handiagoa dago beste toki batzuetan baino, hemen bihotzak samurrak direlako”. Esteban Garibairantz, aldiz, hemengoak nahiz beste edozein lekutakoak, “alokairuzko negartiak” besterik ez ziren. ■



THE BIG FAT NOODLE

Whiskia eta vodka ura dira

XIV. mendetik aurrera latinezko *aqua vitae* (bizitzaren ura) esamoldea erabiltzen hasi zen edari alkoholduak izendatzeko. Ziurrenik hortik dator esanahi bereko gaelikozko *uisge beatha*. Denboraz, hitz horiek beste era batera idatzita agertu ziren ingelesezko testuetan: *iskie bae* (1580 inguruan) eta *usquebea* (1706an), azkenean XIX.

mendearen amaieran egungo *whisky* bihurtuko zirenak.

Eslavieraz *voda* ura da eta *vodka*, aldiz, haren txikigarria; urtxoa, beraz. Lehenengoz 1405ean jaso zuten hitza idatziz, Poloniako agiri judizial batean. Baina garai hartan sendagaiak eta produktu kosmetikoak izendatzeko erabiltzen zuten oraindik. ■



(1919-2019) EHUNDU ARGIA

Carles Puigdemont, ARGIA eta industria-espioitza



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Inork espero ez zuenean iritsi zen akordioa. CUPEk jasandako presio guztien gainetik lortu zuen Mas lehen planotik ateratzea. Carles Puigdemont. ARGIA-ko erredakzioa bero. Albistea osatu eta azken mugimenduen analisia egin beharra zegoelako gehien bat, noski, baina bolo-bolo zebilen izen “berri” hori ere ez zelako edozein ARGIArentzat. Aste-beteko bazkalosteko kontakizunetarako eman zuen gaiak.

Euskaldunon Egunkaria sortu berriak gonbidatuta etorri zen 1991n Puigdemont Donostiara, bertan antolatu zuten “Estatutik gabeko hizkuntzetako egunkariaren jardunaldi”ra, Eslovenia-ko eta Irlandako kideekin batera. Bera *El Punt*, Girona inguruko egunkaririk. Ez zen azken bidaia izango. Ezagutu zituen ARGIAko eta Ametzagaiña taldeko beste enpresetako lagunak, euskarazko prentsari egiturazko eta ekonomiazko babesa ematen ari zirenak. Laster ireki zizkien Puigdemont gazteak *El Punteko* atea, euskaldunak hizkuntzaren eta kulturaren trataerarekin, eta lagun eta enpresa haiekin zituzten antzekotasunek erakarrita.

Askorentzat Kataluniako egunkari erreferentea zen *Avui* porrot egin zuen, eta hasiera batean promesa ez zen *El Punt* txikiak 2009an erosi zuen. Ordurako egunkaria utzi eta Agencia Catalana de Noticias (ACN) sortua zuen Puigdemontek Bartzelonan, internetarako saltoa emanda. Eta ARGIAk 1997an sarrera emandako pausoa aitzakia hartuta beste bisita batzuk egiteko aukera izan zuen zenbaitek bai ACNra eta baita Assumció Maresmek eta Vicent Partalek gidatutako orduko *Vilaweb* txikira ere. Hori ez bada industri-espioitza...

Beti prest komertzialki bezala ikuspegi nazional eta politikoaren inguruko iritzia emateko, azkenekoz *Catalonia Today* Kataluniako aktualitatea ingelesez munduratzeko egunkaria egiten ezagutu du ARGIAk Gironakoa, kazetaritza munduan. ARGIAk izan dituen zenbait erronka bideratzeko pistak eman dizkie Herrialde Katalanek eta Carles Puigdemontek; eta elkartasun keinuak ere izan ditu, 2003an *Euskaldunon Egunkariaren* itxierak ARGIA ere kolpatu zuenean Kataluniako herritarren artean emandako babesa kasu. ■

“ARGIA da egun dagoen komunikazio proiektu onena”

Berrizko harpidedun bat

Albo kaltea, euskal kultura kontsumitzea



Rajoy eta harpidetza kanpaina



ARGIA IRRATIETAN

- **Euskal Irratiak:**
Astelehenetan, 8:00ean.
- **Info7 Irratia:**
Asteazkenetan, 16:15ean.
- **Euskalerrria Irratia:**
Asteartetan, 14:15ean.
- **Bilbo Hiria Irratia:**
Ostiraletan, 10:30ean.
- **Xorroxin Irratia:**
Asteartetan, 18:00ean.

ANTZERKIA MUXIKAN

BAINA HAINBESTE EMAKUME BADAGO HERRIAN?

Teoria feministak praktikara eraman dituzte antzerkiaren bitartez Muxikan. Ahalduntzea, espazio publikoa okupatzea, elkar ezagutzea, ondo pasatzea, elkarrengandik ikastea eta herria biziberritzea lortu dute, besteak beste, herriko emakumeek. Adin eta modu guztietako 55 emakume elkarlanean, antzezten, gozatzen.



Malen Aldalur Azpillaga

@malenaldalur

Sarri elkarri bizkarra emanda bizi gara gure herrietan, auzokidea kasik ezagutu gabe. Adinean aurrera egin ahala, gainera, zailagoa izaten da elkarrekin egoteko espazioak aurkitzea. Hala gertatzen da Muxikan (Bizkaia) ere.

Martxoaren 8 batez batu ziren hainbat emakume muxikar bazkari bueltan. Tar-tean zen Onintza Enbeita eta hark kontatu digu herritarron ekimena. Helburu argia zuten: herrian emakumeen parte-hartzea handitzea. Hasieran, bideo bat grabatzea bururatu zitzairen, baina horrek lan mordoa eskatzeaz gain, bideoan agertzen zirenek proiektzioa ikustetik haratago oihartzunik izango ez zuelakoan, bertan behera geratu zen: “Gero, buruari bi buelta eman genizkion eta gerra garaian kartzelan egondako herriko sei emakume omentzea bururatu zitzaigun”. Horrela abiatu zen gaur egun 55 emakume elkarrekin lanean aritzea ahalbidetzen duen ekimena.

Orduerdi iraun zuen ekitaldi txiki bat egin zuten euren alaba eta ilobekin: “Aitzakia horrekin testu batzuk irakurri eta 30 emakumetik gora *Izarren hautsa*

abesten jartzea lortu genuen”. Horixe izan zen, beraz, aurrekaria. Gerora, batzarra egin zuten Enbeita bera, asanbladako kideak, Udaleko kultur teknikaria eta beste emakume batzuk tarteko, eta aurreko urtean omenaldian parte hartu zuten andrazkoei antzerkia egiteko proposamena egin zitzairen.

“Ez da erraza emakume horiengana joan eta feminismoa zer den azaltzea, ahalduntzeaz hitz egitea”, azaldu du Enbeitak. Nola edo hala balore horiek landu nahi zituzten herriko emakumeekin, baina modu egokiren bat aurkitu beharra zegoen. Lehenengo antzerki emanaldirako 40 emakume lortu zituzten: “Kristoren meritua da proposamena egin eta lehenengoan baietz esan ziguten emakume horiena, nik 80 urte ditudanean neska gazteak antzerkia egiteko eskatzera etortzen badira popatik hartzera bidaliko ditut”, dio Enbeitak umoretsu.

Lehen antzerki horrekin hutsune bat bete zuten 40 emakumeek. Udalak, Muxikaren historiari buruz ateratako liburuan gizona ezkoen elkarriketak baino ez zituen jasotzen, eta antzezlan honen

helburua Muxikako emakumeen egunerokoa kontatzea zen. Historiako hutsuneak betetzea, nolabait. Lehenengo emanaldi arrakastatsua eta gero, hurrengo urtean 40 emakume izatetik 55 izatera igaro ziren. Azken honetan, inkisizio garaiak antzeztu zituzten, akelarre eta guzti.

Muxikako elizan egin den lehen akelarrea izango zen, seguru. Herriak aretorik ez duenez, elizan egiten dituzte ikuskizunak, aldarea agertoki bilakatu. “Fede handiko emakumeak daude tartean baina ez dugu arazorik izan”. Antzezlanaren gaia bati baino gehiago-ri arraro egingo zitzaioala pentsatu zuten, eta horregatik, hasieran azalpenak eman zituztela esplikatu du Enbeitak: “Hau ez da elizaren kontra; guk hau antzeztu edo ez, akelarreak, inkisizioa... gertatu egin ziren”. Ajangizko elizan antzeztu zutenean, esaterako, abadea lehenengo ilaran egon zen eta asko gustatu zitzaioala azaldu du muxikarrak.

Urduritasuna eta ilusioa nabarmendu ditu Enbeitak hasi aurreko uneetan: “Neu ere oso urduri nengoen baina di-



ZIGOR ETXEBARRIA

simulatu egin nuen". Emakumeek agertokira salto, eta txaloka hartu zituzten ikusleek. "Lotsatuta bezala igotzen ziren agertokira, txaloak mereziko ez balituzte bezala", baina ondo merezitako eskertza jaso zuten, "txalo horiek guztiak euren bizitzetan egindako lan guztiaren aitortza ziren".

Ikuskizuna baino gehiago

Ez dute antzerki profesionala egin nahi, ez dute ikaragarritzko gidoia eduki nahi. Ez dituzte aktorerik onenak gura. Elkarrekin ikasi eta egon nahi dute, elkar ezagutu eta aliantzak egin nahi dituzte. Gozatu nahi dute, ikasi, ondo pasatu. "Ederra da herri oso batek parte hartzea, ideologiaren hormak apurtzea, distantzia haustea. Denek dute lekua proiektu honetan".

Belaunaldien arteko harremana azpimarratzen du behin eta berriz Enbeitak, umek zaharrengandik nola ikasten duten, eta alderantziz: "80 urteko amona bati, akaso, gauzak behin baino gehiagotan azaldu behar dizkiozu eta ume bat etortzen zaizu esaten 'ez dakit



ERLANTZ ORTIZ

Goian, bigarren antzezlanak: "Errautsetatik Erne". Muxikan egin zuten 2015eko martxoaren 7an. Antzezlaneko protagonistetako bat da Feli 82 urteko amona. Ondoan ditu Laiatz (obrakto aktore gazteena), Leire eta Uxue. Behean, lehenengoz antzerkia egin zutenekoa, 2014ko martxoaren 8an. "Gure etxe bakarra" zen antzezlanak. Ezkerretik eskuinera: Ixiar Berrojalbiz, Maribi Sarduy, Juanita Uruburu, Espe Mandiola eta Bittori Arrizubieta.

nork oraindik ez du ulertu' eta berak azaltzen dio". Gainera, antzerkia pres-tatzeko egindako entseguek asko batu dituzte parte-hartzaileak, "orain elkar-rekin hartzen dugu parte herriko beste ekintzetan".

Feminismoaz gozatzeko beste aukera bat da; besteak beste, ahalduntzea, zaintza eta espazio publikoaren oku-pazioa lantzen dituzte. Ez dago adinik izar izateko, "harrigarria da bizi guztia zaintzari eman dioten emakume horiek zer gaitasun duten oholtza gainean".

Bakoitzak egiten dakiena edo egin nahi duena egiten du: kantatu, antzeztu, jantziak josi, apaindu... Autoestimua lantzeko parada ere izan dutela azaldu du Enbeitak: "Elizako aldarera -agertokira- iristeko korridorean denak lurrera begira joaten ziren eta ea igandetako mezatan dirua lurrera botatzen zuten galdetu nien; ea horregatik zihoazen denak lurrera begira. Barre egin zidaten, eta hortik aurrera burua tente eta titiak aterata joateko esaten diet", azaldu du Enbeitak algara artean.

"Nik ez dut bizitzan hain esperientzia onik izan; ez dut hainbeste maitasun eta esker on inoiz jaso. Hasieran buruko min asko ematen ditu, baina gero bueltan jasotzen duzuna sinestezina da", azaldu du hunkituta. Aurten, hainbat kontu tarteko, ez dute Muxikarako antzezlanik prestatu. Herritarrak penetan geratu direnez, historian ahaztutako emakumeak gogoratzeko ekitaldia egingo dute martxoaren 6an.

"Lagun batek esan zidan lehengoan, antzezlana ikusten ari zela pentsatu zuela, 'hainbeste emakume al daude Muxikan?', eta nik erantzun nion baietz, eta baita gehiago ere". Egon badaude, ikusaraztea falta da. ■



Goian, iazko martxoaren 8an parte hartu zuen hiru belaunaldiko familia (eta ez zen bakarra izan). Ezkerretik eskuinera: Olatz Betanzos (biloba), Ixiar Sarduy (amona) eta Maider Oar-Arteta (alaba). Behean, urte bereko azaroaren 28an Gernikako Lizeo Antzokian izan ziren.

ARGAZKIAK: AMAIA ATXIKALLEND

tradebi

EB Traducciones Itzulpenak, S. L.

www.tradebi.com

EPAILE FRANTZIAR BATEN GALDERAK ETA-KO MILITANTE BATEN AURREAN

Gallimard argitaletxea bezalako eskaparatea eduki arren, eta kontatzen duen istorioa oso gurea izatearen despit, euskal prentsan ari garenon aurretik nahiko oharkabean pasa zen François Sureauren *Le chemin des morts* eleberri laburra 2013ko *rentrée littéraire* hartan. laz argitaratu zen oihartzun handirik gabe euskaraz (*Zurrumbidea*, Utriusque Vasconiae). Gaztelaniazko edizioak bai, eragin du zaratarik.



Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

The Balde aldizkariaren azken zenbakitik lapurtu dugu liburuaren sinopsia: “48 orrialde. Baionan, 2012ko apirila eta maiatza bitartean idatzia. Sureau legegizonak Parisko Errefuxiatuen komisionatuan lan egin zuen urte askotan. Errefuxiatu ugariaren kasuak pasa ziren bere eskuetatik, horien artean, Javier Ibarrategui etakidearena. Ibarrategui Frantzia bizi bazen ere, eta erakunde armatuarekin loturarik ez bazuen ere, Errefuxiatu komisionatuak Frantzia geratzeko baimena erretiratu zion. Ondoren gertatu zena ez du burutik kendu ahal izan azken 30 urteetan Sureauk. Gure ‘gatazka’ gureak ez diren begietatik irakurtzea ariketa interesgarria da”.

Mokadutxo bat da Sureauren eleberria, 1980ko hamarkadako euskal errefuxiatuen afera Frantziako judikaturaren ikuspegitik kontatzen duena. Errua eta ardura morala dira tonu aseptikoan idatzitako kontakizun honen funtsezko gaia: protagonista den epaileari momentu hartan hartu zuen erabakiak 30 urtean kontzientzia arazoak eragin dizkio.

Egiantzekotasun arazo batzuk gorabehera –Ibarrateguiaren pertsonaia,



Epaila izandakoa da François Sureau eta kontakizun autobiografikotzat aurkeztu zuen ‘Zurrumbidea’, fikziozko elementuak badituen arren.

GALen ekintzak hasi ziren data...– nobela autobiografikotzat aurkeztu zaigu *Zurrumbidea* eta hor hasten dira komeriak. Izan ere, lan honek badu Espainian azken hamarkadetan egin den kontakizun politikoak onartu ezin duen elementu bat: auzitan jartzen du Frankismoaren ondorengo demokrazia zenbateraino izan zen demokratikoa; eta itxuraz, gertakari faktualen bidez egiten du hori.

Trumoiak eragin ditu zenbait erre-dakziotan: *ABC* egunkariak nobela au-

tobiografikotzat presentatzea kritikatu zuen, fikziozko elementuak azpimarraztuz artikulu luze xamarrean; *El País*en *Babelia* gehigarri kulturalan egindako kritikak berriz, nobela ontzat eman ondoren, istorioa “okerra” dela esan zuen –bai neskak, istorio okerrak daude zenbaiten iritziz; eta kritika literarioan ari direla sinetsita daude oraindik–.

Behin kritika politikoak egiten hasita, *gure gauzari* kanpotik egindako irakurketa akaso pixka bat exotismo-zale honi buruz esan daiteke Frantziako Estatua-jarreraren jarrera zuritzen duela ere, gertakariaren pisu guztia epailearen erabakian jarritz –eta izan ziren beste arduradun batzuk, noski izan zirela, ezta Charles Pasqua?–.

Literarioki berriz, faltan sumatzen da pertsonaiak sentitzen duen kulpahorretan gehiago sakontzea. Baita komisionatuko lan-giroaren xehetasun gehiago izatea ere. Memoria fikzionatzeko ariketa baten aurrean gaudenez, gertakariari izerdi pixka bat gehiago egin arazteko lizentzia bazeukan idazleak; eta sentsazioa da, ez duela aukera hori behar bezainbeste baliatu. ■

» Nobela labur honek
Trantsizio osteko
erregimenaren label
demokratikoa auzitan
jartzen du, gauza
onartezina Espainiako
establishment
kulturalarentzat

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Nor gara iragandakoa eta gero?



Saioa Ruiz



Gaueko zaintzailea

JULEN BELAMUNO

Elkar, 2016

Ukabilak eta loreak (2015) ipuin bilduma plazaratu ostean, narrazio luzearekin itzuli da Julen Belamuno: *Gaueko zaintzailea*. Titulu beretik pertsonaiaren lanbideari buruzko informazioa bereganatzen dugu. Irakurketari ekiterakoan, gauez, aluminio-fabrika batean dena ordenan jarraitzen duela ikuskatzeaz arduratzen den pertsonaia bezala aurkezten zaigu. Ostera, narrazioan aurrera egin ahala, gaueko zaintzailea lanbide iza-teaz haratago, identitate bat biltzen duen izena dela ohartzen gara. Nor da beraz gaueko zaintzailea?

Gaueko zaintzailea pertsonaia isolatua da, izaera obsesiboduna (ordenaren maitale amorratua), lagunik eta familiarik gabekoa. Bere aitaren pauso berberak segitu ditu bere buruari ezer ere kuestionatu gabe, edozein galderak bere mundu ordenatu eta erregularra hankaz gora jarriko duen beldur delako, eta erritu erlijioso baten antzera eutsi dio bere aitarengandik jasotako eginbeharraren kontzientzia zorrotzari. Esan daiteke, beraz, lanaz egin duela bere izena eta izana. Zer gertatzen da, ordea, oinordean jasotako engranajearen gurpila eteten bada? Nor izan zen/da orduan gaueko zaintzailea?

Identitate baten (des)eraiketa horren inguruan gorpuzten da eleberriaren hari nagusia. Orduan hasiko dira narrazioari tonu existentzialista ematen dioten galderak: zer alde dago, azken batean, zerbait izan denaren eta ezer izan ez denaren artean? (41. orrialdea), nora joaten dira iraganeko gertaerak? (46. orrialdea), nolako bizimodua izango ote zuen [...] zaintzaile ez izatea aukeratu balu? (152. orrialdea).

Hogeita zortzi urtetako dedikazio leial baten ostean –aita-semeen zerbitzaldiak batuz gero ia berrogeita hamar urte ateratzen zaizkio (151. orrialdea)– pertsonaia bere lana uztera behartua izango da. Teknologia aurreratuei esker bere postua bigilantzia kamerekin ordezkatzeko dute, eta fabrikari pasako duen azken gau horretan kokatua da eleberria. Hala eta guztiz ere, iraganeko mundu baten amaiera eta bizitza berri baterako trantsizio gau horretan, pertsonaia ez da etorkizuna proiektatzeko gai, inertziaz jarraitu duelako jasotako bizimodua. Horren ordez, nostalgiaz ekingo dio iragana gogoratzeari: gaueko zaintzailetzak indarra zueneko garaiak (55. orrialdea), ura gardena eta garbiagoa zeneko garaia (104. orrialdea), sirena hotsen ordez ezbeharrak zabaltzeko eliz kanpaiak baliatzen zireneko garaiak (122. orrialdea).

Nondik datorren eta nora doan galdezka dabilen gizakia da. Horregatik da izengabea, denok gordetzen dugulako gaur egiten gaituen eta gero bilakatuko gaituen orainaren iragan bat. ■

Julen Belamuno
ezizenaren atzean
Jose Mari Segurola
Amutxastegi
azpeitiarra dago.



» TELEGRAMA

Silvia Pérez Cruz abeslari kataluniarrak Donostiako Victoria Eugenia kontzertua eskainiko du martxoaren 11n; aurkeztu berri duen *Domus* diskoa zuzenean entzuteko parada ezinhobea *STOP* Martxoaren 6an hasi zen eta 13ra arte izango da zer kontatua bertan: **Gernikako Lekue** festibalaz ari gara, noski; kontzertuak, erakusketak, tailerrak, proiektzioak... *STOP* **Bi Harritz Lau Xori** jaialdiaren 22. edizioa ekitaldiz beterik dator: musika, antzerkia, dantza eta zinema uztartuko dira martxoaren 15etik 20ra bitartean *STOP*

» MUSIKA

Poza



Montse Auzmendi

Verdiren *La traviata* OPUS LIRICA ORKESTRA

Zuzendaria: Andrea Albertin.

Eszena zuzendaria: Valen Moñux.

Tempus Ensemble Abesbatzaren zuzendaria:
Jagoba Fadrique.

Abeslariak: Ainhua Garmendia, Matteo Mezzaro,
Paolo Gavanelli, Ainhua Zubillaga.

Lekua: Kursaal Auditorioa.

Data: otsailaren 19a

Orain dela egun batzuk entzun nuen Krystian Zimmermann piano joleari egindako elkarrizketa interesgarri bat eta, beste kontu askoren artean bat nentorren zerbait esan zuen: "Taula gainean musika egiten denean inporta duena poza sentitzea dela; edo, hobeto esanda, musikarien artean alaitasuna sentitzen denean hori transmititu egiten dela eta horrek egiten duela benetan on interpretazio bat (kalitate minimo bat suposatzen da, noski)".

Esaldi horretaz gozatu nintzen joan den ostiralean Donostian antzeztutako *La traviata* opera entzun nuenean. Opus Lirica izeneko elkartearen esfortzu ikaragarria egiten ari da Donostian operari bultzada emateko eta opera denboraldi bat sorrarazteko. Ez da gauza erraza, batez ere finantzazio ederra behar delako horretarako. Baina pixkanaka ari dira, baita ekimen interesgarriak eskaintzen ere. Aldi honetan, Verdiren titulu famatu

honen bertsio benetan "pozgarria" egin zuten. Baliabide eskasak dituzte, adibidez, begi-bistan zegoen zein pobrea zen dekoratua, baina hala eta guztiz ere, ikuskizun duin eta adoretua egin zuten. Batez ere, eszenarioan zeuden artista guztien arteko pasioa agerikoa izan zen, eta "poza" berriz, kutsakorra. Matteo Mezzaro tenorea, Alfredoren rolean, ahots politekoa baina teknika kaskarrekoa, Paolo Gavanelli baritonoa, Giorgio Germont egiten zuena, ahots ilun eta hautsezatuarekin ez ziren nahikoa izan espektakulua izorratzeko. Ez. Publikoa txundituta geratu zen. Hori da alaitasun musikaren magia.

Hori bai, Ainhua Garmendiak Violetta Valéry ederra egin zuen. Aspaldi honetan entzun gabe nuen, eta aitortu behar da soprano ederra dela, teknika landua duela, eta alde interpretatibotik oso konbentzigarria izan zen. Oso ondo mugitu zen taula gainean eta aria akatsgabeak egin zituen: *Amami Alfredo* edo *Aria di Violetta*, gozagarriak, esate baterako.

Beste abeslariak, hortxe. Ondo. Opus Lirica orkestrak, Andrea Albertinen zuzendaritzapean, duintasunez bete zuen bere papera. Bestalde, oso sinpatikoa izan zen dantzarien taldea, Nafarroako Dantza Eskolakoa, eta oso berezia toerro bizkaitarraren irudikapena, aurreku dantzaria bezala. Bitxia. Orokorrean, merezi izan zuen saioak. Segi aurrera! ■



Andrea Albertin zuzendaria



EOS

Mundua musika bilakatu zen



Andrea Zuvotzi

Lagunek erran dautate; «ze?! haier bu-
ruz eginen dun kronika?! burges-or-
kestratxarra-kulturaherrikoisuntsitzai-
le-ñoños16.... »

- Bai !
- Goazen !

Lehendabizi, sorpresa! Kursaaen ez
nintzen sekulan sartu, eta alimaleko
gela da! Ene lekua gain gainean nuen,
oholtzatik urrunena (merkeena, 7 euro).
Lehen aldia zen horrelako musika zuze-
nean entzuterat etortzen nintzela.

Eszena gainean, ehunka aulki huts,
birtuoso ipurdi mazelen zain. Eta etorri
dira, birtuosoak; 4 Kontrabaxu, 6 bio-
lontxelo, 8 altu, 20 biolin (9 bigarren,
10 lehen, eta solista bat), 12 aerofono
(zehir flauta, oboe, tronboi, adar...) eta
2 perkusio jole (2 metroko bonbo ba-
tekin!). Orkestra zuzendaria sartu da,

azkenean, argiak itzali, eta hasi dira mu-
sikariak!

Mekauendios! Ez ziren 30 segundo
pasa, malkoak begietan nituela. Orkes-
trak, akustikoan jotzen du. Mikrofonorik
ez. Nahiz eta haietarik 60 bat metrotarat
izan, soinuaren inpaktua zuzenki bil-
tzen nuen. Aitzinean zirenek, xehetasun
guziak sumatu behar zituzten, belarria
kilikatzen dauzkizuten *pizzicato* ttipie-
netatik, bonboaren ferekatzeak askatzen
dituen infra baxuek tripa hartu arte.

Lehen zatiak 10 bat minutu iraun ditu.
Txalo. Ondotik etorri da Ingrid Fliter
pianista. Harekin beste 30 minutuz se-
gitu dute. Pianista ikaragarria. Lehen
zatian nahiko «largo» bazen giroa, hor
nuentzien unibertsoan sartu gira. Jau-
tsi, galdu, norabide berri bat, ahantzi,
berriz etorri, igo, igo, igo, BUUM! Tim-
bal-bonbo-gong koktelak nire aulkia-
ren zokorat bidaltzen ninduen. Aspaldian ez
ninduen zerbaitek (norbaitek) horrela
hartu! Harrigarria.

EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOAREN KONTZERTUA

Urtarrilaren 18an Euskadiko Orkestra Sinfonikoak
kontzertua ematen zuen Kursaaen, Donostian.

Afixan erraiten zutenaz,

Maurice Ravelen doinuak eman behar zituzten,
hiru zatitan, Jun Märkl-en zuzendaritzapean.

Pausa bat 10 minutukoa. Berriz etor-
tzen dira musikariak baina zenbaki bi-
koitzean! Hasieran 55 baziren, orain
110 bat pasa!

Kasik ordu batez segitu daukute, eta
berriz ere harrigarria. Ikuskizun bat,
hainbat esku, beso, ber momentuan mu-
gitzen, ber jestuen errepikatzen.

Hunkigarria, barne korapiloraio.

Orkestra zuzendariak, bere tropak
musika sakonaren gerlarat bidaltzen
zitzen. Pirata kapitain bat, bere itsason-
tzi gainean, odei hertza suntsitu nahian;
«urrikirik ez! eutsi! eman eman! Orain-
dik gehiago!». Apokalipsiaren zaldunen
jeneralak, adar puska batekin zuzentzen
zuen mundua.

Gau horretan beste mundu batetara
ihes egin bainuen, 1.30'diz.



Kontzertuetan, musikaren mundurat
iritsi nahi dugu gehienetan; gau horre-
tan, mundua musika bilakatu zen.

Irakurle oroer, eta nire lagun-
er gomentatzen dutan esperientzia bat! ■

Egilea: Ana Zambrano

Puzzlea

Koka ezazu pieza bakoitza dagokion tokian eta Jon Arretxe idazleak esandako esaldi bat irakurriko duzu.



Sudokuak

Bete itzazu gelaxkak 1etik 9rako zenbakiak idatziz, zutabe, lerro eta 3x3ko koadro bakoitzean errepikatu gabe.


2				3		4		
3		4	2	9	5		1	
		7		8	1	3		
	7		6	1	9	5		3
	1	3				6	4	
6		2	8	4	3		7	
		9	1	5		2		
	2		9	6	4	1		7
		6		2				9

			7		3	8		
		4						
5			8			9		7
			3			6		
	8	2	9		6	1	5	
	6				5			
6		9		1			3	
					4			
		8	2	4				

5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.

1. Arraro. 2. Ondoez (alderantziz).
3. Garraibidea. 4. Ilea garbitzeko xaboi.
5. Bizitasunik gabe.



Hizki berak

Osa itzazu hitzak, falta diren hiru hizkiak denetan berak direla kontuan izanik. Hori bai, hurrenkera ez da zertan bera izan.

1				R	K	A	R	I
2	J				S	K	O	R
3	I	D				O	G	O
4	G	I	B				R	I
5	K	A	M	E				I
6	M	A	U	S	O			

Soluzioak

1	4	6	3	2	7	8	5	9
8	2	5	9	6	4	1	3	7
7	3	9	1	5	8	2	6	4
6	5	2	8	4	3	3	9	7
9	1	3	5	7	2	6	4	8
4	7	8	6	1	9	5	2	3
5	6	7	4	8	1	3	9	2
3	8	4	2	9	5	7	1	6
2	9	1	7	3	6	4	8	5

Puzzlea: "Nik ez ditut bi egun berdinarik eta hori gauza ederra da benetan. Ez daukat errutinarik. Errutinak, nire ustez, gauzak egiteko grina itzaltzen du."

Hizki berak: 1. Bitxi. 2. Irral. 3. Trena. 4. Xanpu. 5. Ilau. 6. Kameleoi. 6. Mausoleo.

Sudokuak: 1. Olerkari. 2. Jeloskor. 3. Ideologo. 4. Gibelori.

Miguel Jara. Txertoekiko ikuspuntu kritikoa zabaltzen



Madrilen jaio zen 1971n. Azken hamabost urteetan industria farmazeutikoaren jarduna eta sendagaiek eragindako kalteak ikertzeagatik nabarmendu da Miguel Jara kazetaria. Bost liburu kaleratu ditu; horietan azkena, iaz argitaratua, *Vacunas, las justas* (Txertoak, beharrezkoak baino ez).

“Txertoen aurkakotzat jotzen da txertaketei edonolako kritika egiten dien edonor”



Unai Brea

@unaibrea

ARGAZKIAK: MIGUEL JARAK UTZIAK

Kazetaria eta abokatua

“Konturatu nintzen kazetari lana ez zela nahikoa. Bai, jende askorengana iristen nintzen, baina aldaketarik eragin gabe. Eta orain bost urte Almodóvar & Jara abokatu-bulegoa sortu nuen, osasungintza gaietako zuzenbidean aditua den Francisco Almodóvarrekin batera. Bulego berezia da, abokatu bat eta kazetari bat gaudelako, biak maila berean, eta beharbada multinazional farmazeutikoen aurkako auzi gehien daukan munduko bulegoa gara, AEBetakoak aparte utzita”.

Liburuaren izenburuaren ondoan galdera bat ageri da: txerto guztiak dira beharrezkoak, eraginkorrak eta seguruak? Zerorrek erantzun.

Argi dago txerto batzuk beharrezkoak direla, eta horretan bat datoz osasungintzako langile guztiak. Txerto eraginkorrak izan ohi dira, nahiko seguruak... Beste batzuen beharra –azken hamarkadetan merkatuan sartu direnena hain zuzen– zalantzazkoagoa da, azkarregi sartu dira merkatuan, behar bezain ondo ikertu gabe, eta ondorioz ezbaian daude haien eraginkortasuna eta segurtasuna. Baina mezu orokorregiak ematen dira txertoen inguruan: begi onez ikusten dituztenen ustez, txerto guztiak dira onak; eta alderantziz. Nik txertoak banan-banan aztertzeke helburua nuen. Ez dut txertaketa-sistema kritikatu nahi, baina bai irregulartasunak azalerazi.

Batzuen ustez, zure jarrera eta txertoen aurkakoa izatea gauza bera dira.

Erasoak jasotzen ditut etengabe. Gaur egun txertoen aurkakotzat jotzen da txertaketa-sistemei edonolako kritika egiten dien edota edozein txerto zalantzan jartzen duen edonor. Estrategia makurra da, ez dakit oso ondo nork sustatua. Txertoei

kritika handitzen denean martxan jartzen da ikuspuntu kritikoa duen oro –zenbait mediku barne– iraintzen eta umiliatzen duen sistema oso bat: txertoen aurkari deitzen zaigu ez garenoi.

Liburuan diozu txertoen arerio txarrenak direla, hain zuzen, haien aldeko mezuan gehien nabarmentzen direnak.

Esaldi horrekin esan nahi dudana da txertaketa-sistemei kalte egiten diona haien inguruko zientifismoa dela, hau da, fundamentalismo zientifikoa; fundamentalismo horrek sustatzen ditu iraina eta umiliazioa, “txertoen aurkako” terminoaren bidez. Txertoen aldeko mezua zentzu komunik gabe eta, kasu askotan, zorroztasun zientifikorik gabe emateak herritar askoren mesfidantza eragiten du. Oraindik gutxiengoa izan arren, handituz doa ikuspuntu kritikoa dutenen kopurua; horiek denak txertoen aurkaritzat jotzen dira.

Medikuek zer jarrera izaten dute?

Gehienek itsu-itsu sinesten dute txertoetan, eta bat etorri ohi dira haien inguruko zientifismoarekin. Medikuek asko ez dira izaten sendagaiekin kritikoa, eta beraz txertoekin ere ez.



Miguel Jara ezkerrean, Francisco Almodóvar abokatuarekin. "Beharbada multinazional farmazeutikoen aurkako auzi gehien daukan munduko bulegoa gara, AEBetakoak aparte utzita".

Hegazti gripearen (2005) eta A gripearen (2009) kasuek eragin handia izan zuten txertoen ospe ona zapuzteko.

Bai, txertoen irudia zikindu zuten. Gainera, bien bitartean, 2007-2008an, papilomaren txertoa ematen hasi zen mundu osoan. Txerto horrek eragindako lehen kalteak 2009an ezagutu ziren, A gripearena gertatzearekin batera. Horrek guztiak eragin zuen herritar askok beren buruei galdetzea ea txerto guztiak perfektuak ote diren, edo kritika merezi duten beste batzuk ere ba ote dauden.

Iragarri duzu papilomaren txertoa aspaldiko eskandalurik handiena izango dela osasungintzaren arloan. Haatik, ez dirudi haren aurkako iritzi-korrante zabala sortu denik; A gripearen kasuan sortu zen bezala, esaterako.

Kontraesana dago herritarrek gaiak duten interesaren eta eskandaluaren neurriaren artean. Papilomari buruzko bilaketa kopurua asko handitu da interneten, eta gure bufetean kalteagatik kasu asko daramagu, baina albiste

bat daukagunean ia hedabide batek ere ez du aipatzen. Uste dut hedabideetan alarma jo dutela, txertoei buruzko informazio kritikorik ez emateko ohar-taraziz, txertaketa sistemari kalte ez egitearren. Baina, lehen esan dudanez, kontrako efektua lortzen da; herritar asko konturatzen dira informazioa ez-kutatzen ari dela, eta horrek bultzatzen ditu txerto guztien aurka jartzera.

Hedabideen jarrera aipatu duzunez... Espainiako Estatuko Osasungintzari buruzko Berri-emileen Elkarteak (ANIS) zabalduetako manifestu batek gomendatzen du txerto batek eragindako kalteaz informatzean, aldi berean txerto guztien beharra aipatzea.

Hala da. Osasungintzako gaietan diharduten kazetari elkarte handiena doktrinatzan ari da Osasun Ministerioari eta laborategiei interesatzen zaien ildoan. Dokumentatu dezaket -epaitegietan haien aurka ari garelako-, ministerioa eta laborategiak batera aritzen direla kontu hauetan.

Ebolaren aurkako txerto aurkitu berria da orain hizpide.

Osasunaren Munduko Erakundeak erraztasun handia eman zien laborategiei 2014an, aurrez A gripearekin egin bezala, txerto hori lehenbailehen aurkitu zezaten. Horrek alde ona du noski, baina alde kritikagarria ere bai: zeren zain egon gara? Ebola 70eko hamarkadatik da ezaguna. Epidemiak gizateria osoari eragingo diola dirudien arte itxaron behar dugu? Bestalde, laborategiei aukera horiek ematea bi ahoko ezpata izan daiteke. A gripearen kasuan eman egin zizkieten, eta eskandalu ekonomikoaz gain, txertoak erreazio kaltegarriak eragin zituen. Ebolaren kasuan, berdin: laborategi publikoak etengabe txerto berri eraginkor eta seguruen bila aritzea bultzatu beharrean, itxaron egin dugu epidemia gorenean egon arte sendagai-ekoizpenaren kanon guztiei muzin egin eta konpainiei aukera emateko txertoa arin bai arin egin dezan; denok dakigu txertoak ez direla arinegi egin behar, ez baitago denbora nahikorik haien eraginkortasuna eta segurtasuna neurtzeko. Munduko osasungintza sistema guztiz makurra da, etengabe konpainia farmazeutikoen alde ari da. ■



Otegik astebete darama kalean eta Euskal Herria ez da oraindik independente

Arnaldo Otegi kalean libre ibiltzeak eragin du lehen lurrikara euskal politikan: ezker abertzalearen barruko zatiketa. Izan ere, Sortuko ehunka kidek alderdia utzi eta JODER eratzea erabaki dute: Jada Otegiz Desengainatutako Euskaldun Radikalak. “Erabat suminduta nago, ez zait kiniela tokatu, eguraldi petrala egiten jarraitzen du, A8ak kurba

eta radar pilo bat du oraindik, Goenkale ez da itzuli eta semeak berriro atera du zero matematiketan”, kexatu da Sutagar Etxaburu alderdi berriko bozeramailea, “horretarako ez genuen Otegirik behar!”.

JODERek bere lehen ekitaldirako deia egin du dagoeneko: Sorturen karnet apurketa nazionala. Aberri Egunean

izango da hitzordua, Anoetako izotz pistan, “Utikan lider karismatikoak, emaitzak nahi ditugu ya!” goiburuarekin. Momentuz atxikimendua adierazi dute belodromora sartu ezinik euri-jasaren ondorioz katarroa harrapatu zuten ehunka lagunek, BERANDUEGI praktikan dabilen batek jakin izan duenez.

Martxoaren 8an marmola erruz aurkitu dute alarde baztertzaileen aldekoen aurpegietan

Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna dela-eta, Irungo eta Hondarribiko alarde baztertzaileen aldeko elkar-teen eskatu dute ez ditzatela indarkeria matxistarekin lotu. Beranduegi azaldu diotenez, “guk eskopeterei ‘puta’ eta ‘bigotuda’ deitzen diegunean, kariño osoz egiten dugu, emakumeen arteko elkar-tasun keinua da”. Eta plastiko beltzak? “Neska, neska, mundu guztiak daki bel-



Hondarribiko ekintzaile feminista bat

tzak ondo konbinatzen duela edozein kolorerekin”. Geologoek konfirmatu digute, adierazpenak egin dituen pertsonaren aurpegian Euskal Herriko marmol-harri erreserba handiena dagoela. Sukaldeko entzimera aldatzekotan ginen eta, ze ondo aizu.

SAREAN ARRANTZATUA

Politikari guztiak lukainkarekikoak dira!



Donostiako ospitaleko jantokian.

ARGIAKOEN (G)UNEA

Gure gaiak dira gure baloreak,
ARGIA kideak gure oinarria

OROIMEN HISTORIKOA
PAREKIDETASUNA
HERRIEN MUNDUA
| HEZKUNTZA ERALDATZAILEA
EUSKALTZALETASUNA
ELIKADURA BURUJABETZA
INDEPENDENTZIA
DEMOKRAZIA ZUZENA
DESOBEDIENTZIA ZIBILA
GIZA ESKUBIDEEN DEFENTSA
ERABAKITZEKO ESKUBIDEA
SEXU ASKAPENA

Atal honetan, herri eragileen lana ezagutarazi eta urtean zehar kaleratutako materiala zozketatuko dugu hilerro ARGIAko harpidedunen eta Piztu Ezazu ARGIAren bitartez ekarpen ekonomikoa egiten duzuenon artean.



Balio hezitzaileak sustatu nahi ditugu Argian, bide horretan ari den hezkuntza formala eta ez-formala lagun: haurren parte-hartzea eta erabakitze ahalmena aintzat hartzen duen hezkuntza, hezkidetzan, aniztasunean eta elkarbizitzan oinarritua. Komunitatea eta auzolana abiapuntu, denon artean belaunaldi askeak eta autonomoak heztea dugu amets.

MARTXOKO ZOZKETAK



Berdean hezi eta Haurren hiria
(4 liburu)

Txatxilipurdi elkarte
www.txatxilipurdi.com



Hazi Hezi aldizkariaren harpidetza

Hik Hasi elkarte
www.hikhasi.eus/aldizkariaH.php



Urtxintxaren materiala
(4 material saski)

Urtxintxa Eskola
www.urtxintxaeskola.org



Perretxiko Zaindariak
(3 jolas)

ARGIA
www.argia.eus/denda

PARTE HARTZEKO

☎ 943 371 545

gunea@argia.eus

www.argia.eus/gunea

Herri mugimenduko eragilea bazara eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan

((112))

ZAUDEN LEKUAN ZAUDELA



PERTSONA HELBURU

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO